



ARGIA

ABIADURA HANDIKO
NAFARROAKO KORRIDOREA:

Trenbide itsuan

16-21. orrialdeak

#2.791 | 2022 / 09 / 11 | 4,00 €



***"Herritarrek
kontakizun
osoagoa nahi
dute gatazkaz"***

16 | THOMAS LACOSTE



***Natura eskola
bihurtu dute
Azkoitiko ikastetxeek
elkarlanean***

32 | HEZKUNTZA



***"Gure literaturaz
dugun irudia
berrirakurri daiteke"***

52 | IRATI MAJUELO

**LURRA
HERRIARI
DEIKA**

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ARGAZKIA: **EKINKLIK**

Iritziak

- 22 | SONIA GONZALEZ
- 23 | ROSER ESPELT
- 23 | LEIRE NARBAIZA
- 24 | MAIALEN ARTEAGA

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
IRATI MAJUELO
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


16 | **THOMAS LACOSTE**

Hipotesi demokratikoa: Euskal historia bat filmaren egilea elkarrizketatu du Danele Sarriugartek. Mintzatu dira borroka armatuaren informazio eta ezagutza faltaz, eta garaian garai egin den kontakizunaz. Filma egiteko funtsezko arrazoi hau izan duela adierazi du: "Zer-nolako ikusezintasuna eta estigmatizazioa egon den gatazka honen eta horren eraldaketaren inguruan".

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Kolonizazio energetikoa Extremaduran: orain berriztagarrien izenean arpilatuko dute

Urko Apaolaza

26 | GIZARTEA | AHT NAFARROAN

Beti finantziazioan kateatuta

Xabier Letona

32 | HEZKUNTZA

Berdegune hektarea bat, eskolek elkarlanean erabiltzeko

Mikel Garcia

36 | EUSKARA | IKUS-ENTZUNEZKOAK

Aurrerapauso txikiak

Maddi Viana

44 | KULTURA

Dolutik sortutako bidaia tantrikoa

Kepa Matxain

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Maddi Viana, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Peru Iparragirre, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoko

komertzial@argia.eus

komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA


iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure
egile eta aitortu eta baldintza beretan
eginez gero. Are gehiago, gure edukiak
ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugun.

Lizentzia hau soilik ARGIAren
edukientzat da baliagarria,
baliatze beste testu eta argazki
batzuek lizentzia hau ez izatea.


OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Legeari iskin?

Duela urte batzuk hasi ziren Euskal Herriko kaleetan Glovoren motxila horiak agertzen, eta haiekin batera eragile sozial eta sindikalen salaketak, multinazionalak berarekin batera zekarren esplotazioaz. Geroztik, Glovoren aurkako hainbat epai izan dira, langileak autonomo faltsu gisa tratatzeagatik. Ostegunean langileen eskubideak errespetatzeko borrokaren beste kapitulu bat hasi da Iruñean, Gizarte Segurantzak Glovoren aurka jarritako salaketagatik deklaratzera deitu baitituzte 80 langile. LABek salatu du Glovok "erabateko inpunitatea" izaten jarraitzen duela. Noiz arte?



IA - JUSTIZIA JAUREGIA



“Xenki” eta “Murgi” Guardia Zibilak hil zituela ebatzi du Jaurlaritzaren ikerketak

ERREDAKZIOA

1 972ko irailaren 2an Lekeition hil zituen Guardia Zibilak ETako kide ziren Joxe Benito Mujika *Xenki* zaurzutarra eta Mikel Martinez de Murgia *Murgi* sopuertarra. Orain arte bertsio ofizialak zioen tiroketa batean hil zirela, baina senideek eta Egiari Zor fundazioak eskatuta Eusko Jaurlaritzak aurrera eramanean duen ikerketak ondorioztatu du Guardia Zibilak tirokatu zituela Lekeition eta 50 urteren ondoren, Eusko Jaurlaritzak "exekuzio arbitrarioaren biktimak" ofizialtzat aitortu ditu.

Jaurlaritzak adierazi du Espainiako Poliziak bizitzeko eskubidea urratu zuela. *Berria* hedabideak azaldu duenez, ikerketa hau egiteko hilketaren egunean bertan zeuden lekukoek testigantzak bildu dituzte, eta gorpuen azterketa egin zuen medikueta batekin ere hitz egin dute: "Hark gordeta zeukan oraindik informazio guztia; kasua oso ondo gogoratzen zuen, gainera" adierazi dio euskarazko egunkariari Egiari Zor Fundazioak.

DENDARI KALEKO ETXEBIZITZA BATEAN ERILAK

Lekeitioko Dendari Kaleko etxebizitza batean hil zituzten biak. Medikuek txos-

Martinez de Murgiaren kasuan, Jaurlaritzaren ikerketak zehaztu du hogei tiro jaso zituela gerrialdean, guztiak atzealdetik

tenak zioen Mujikak tiro bakarra jaso zuela eztarrian, eta lekukoek ezagutze- ra eman dute tiro hura frankotiradore batek bota zuela etxearen pareko erakinetik, Mujikak balkoiko atea zabaldu zuenean.

Martinez de Murgiaren kasuan, Jaurlaritzaren ikerketak zehaztu du hogei tiro jaso zituela gerrialdean, guztiak atzealdetik. Horrek bertsio ofiziala gezurtatzen du, tiroketa izan balitz ez litzukeelako atzetik jasoko.

SENIDEEN ETA EGIARI ZOR FUNDAZIOAREN ESKARIZ HASITAKO IKERKETA

Berria egunkarian Jone Arruabarrena kazetariak fin jaso du ikerketa honen nondik norakoa: urte askoan kasua isilpean egon ondoren, 2016ko urriaren 2an Lekeitioko Udalak Gogora institutuari eskatu zion egia azaleratzeko ikerketa bat zabaldu zezan. Bi urte geroago, hildakoen senideek eta Egiari Zor Fundazioak Jaurlaritzari errekurtsioa aurkeztu zioten 2016. urtean indarrean jarri zen 107/12 legearen bidez eta gertatutakoa ikertzeko eskatu zioten. Lege horren xedea da 1960tik 1978ra bitartean "motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa" ematea.

Bestalde, Egiari Zor Fundazioak eta 50 urte Xenki eta Murgi plataformak bi hildakook omentzeko ekitaldia antolatu zuten elkarlanean. Irailaren 2an izan da Lekeition eta "Egia jakiteko garaia da" lelopean egin da ekitaldi politikoa, bi etakideak hil zituzten etxearen aurrean. Lekeitioko Udalak harrera instituzionala egin die senideei ekitaldiaren aurretik. ●



LEA ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA

MATERIALISMO HISTERIKOA

Irabazi asmoko lagunak



UXUE APAOLAZA LARREA

Baliteke Google nire lagun onenen artean egotea. Dena kontatzen diot, dena galdetzen diot, eta berak beti dauka erantzunen bat, gomendio sorta bat. Beti hartzen nau koloretsu. Beti dago hor. Eta falta bazait, noraezean sentitzen naiz.

Azken hilabeteetan kontatu diot nora joan naizen “eguraldia Sous-tons”, haurrarekin zer egin dudana eguraldi txarra zegoenetan, zer pelikula ikusi dugun online, nola prestatu ditugun mikrouhin labean egiteko krispetak, mikrouhin gabe, nola kozinatu ditudan hainbat otordu, zer idazlerekin obsesionatu naizen. Beste mota bateko kezken berri ere eman diot: “koloneko minbizia sintomak”, “hilekoaren sintomak minbizia”, “minbizia berrogei urtetik aurrera”. Googlek badaki gaur zertaz idatziko dudana ere, beti daki zertaz idatziko dudana.

Nire noizbehinkako lagunak helbideak dakizki (Maps), noiz bisitatu ditudan, zer klase ematen hasi naizen, eta klase horietan zer material erabiliko dudana (Drive). Eskolako gurasoen kezken berri dauka (Whatsapp), are gehiago ikasturte pandemikoan (Meet).

Eta hara, uda honetan, enpresa horretan lan egiten duen ingeniari bat kaleratu dutela irakurri dugu, adimen artifizial batek bere buruaren kontzientzia hartu duela eta sentimenduak dituela esateagatik. Tira, berri horiek hala-hola iristen zaizkigu, baina lerrobura nahikoa da denok filosofiara lerratu, eta gure bazkalosteak aberasteko. Adimen horrek beren buruaren kontzientzia duten izakien txatak eta foroak erabili ditu bere burua aberastu eta trebatzeko; beraz, horixe simulatzeko gai da. Hori besterik ez da, lasai, esan digute. Eta gogoratu dut jendea atzo ikasitako hitzen bidez asaldatzen (ez zait inoiz ahaztuko Gaddafiz aritzeko “satrapa hutsa da!” nola aztoratzen ginen). Edonori sartzen zaio zalantza, norik nor trebatzen duen, simulazio zena berezko noiz bihurtzen den. Gaur simulazio asko dut aurretik, Googleri Youtuberaren bidez eskatuko diodan abestiarekin erlaxatu aurretik.

Eta kezka ez da nire laguna makina bat delako (bizitzaren bihurgune honetan, ez zait hainbeste inporta): gehiago kezkatzen nau nire laguna irabazi-asmo handiko enpresa bat izateak. Enpresek ez baitute ezer dohainik egiten. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

EGUN ON JOSEBA,
ARBONAKO LUR SAILETAN
ESPEKULAZIOAREN HARRA
SARTZEN ZAIGU URTE OROZ,
NOLA KEN DEZAKEGUN
JAKITEKO DEITZEN
ZAITUT...



ADUR

Auzitegiak

Espainiako Auzitegiak Txori Barrote konpartsa ikertuko du, presoek argazkiak erakusteagatik. Dignidad y Justicia elkarteak jarritako salaketa tramiterako onartu du Ismael Moreno epaileak, eta konpartsaren jarduna ikertzea eskatu dio Espainiako Poliziari, Bilboko Aste Nagusian “terrorismoa goretsi” ote duen ebazteko.

Gorbatxov

Euskara

Lekualdaketa



ULA IRURETAGOIENA

Desberdin gara oporretan. Desberdin bidaiazen dugun lekuetan espazio eta denbora desberdinean murgiltzen garenean. Gorputzaren erritmo organikoagoetara egokitzen den denboraldia izateaz gainera, bestelako testuinguru espazial batean egoteak desberdintasunak eskaintzen dizkio gure gorputzari. Espazioaren leku aldaketak gure sentsazioetan eragiten duela esan nahi da. Beste horizonte fisiko baten aukerarekin begiek “arnasten” dute sakon eta luze begiratzean; norberaren neurria inguruarekin harremanean jartzeko parada da, norberaren txikitasuna eta inguruarekin handitasuna jasoaz aldi berean. Orientazio desberdin batean kokaturiko oporretako etxean, egonaldiak beste harreman bat eskainiko digu eguzkiarekin, egunsentia edo ilunabarra bistartzeko denbora eskainiaz, planetaren meridiano eta paralelo kokapena gorpuztuz. Akaso etxeko pribatutasun beharraren aurrean erlaxatuago izan gaitezke, edo ezinbestekotzat jotzen dugun espazio beharra lausotzen da. Beste soinu batzuek inguratuta egongo gara, naturako elementuak gertuago izango ditugu edo artifizialtasun gutxiagoko eremuetan denbora luzeago igarotzeko aukerak naturarekin lotura estuagoan egotea baimenduko digu. Eta beste klimatologia batek laztanduko gaitu –2022koa izerditan gogoratuko dugu berdin zein txokotan gordeta egon garen–, zaintza termikoak bere denbora hartuko du, itzala, babeslekua edo ura bi-latzak lekuaren irakurketa bat eskainiz.

Esan daiteke deskantsu egunetan testuinguruarekiko sortzen duguna lotura afektibo baten eraikuntzarekin harremanean dela. Horregatik pizten dira zenbait idealizazio bidaia-lekuarekiko; “hona etorriko nintzateke bizitzera” edo “toki honetan liburu bat idazteko bakkea izango nuke” edo “erretirorako leku aproposa da hau”. Oro har, lekualdatzeak beste atentzio espazial posible baterako atea irekitzen du, eta normalean inguratzen gaituenarekin loturan egoteko egoera irekiagoan edo prestutasun gehiagorekin gaude. ●



MANE ESPINOSA

Noren isla da Diada?

 PERU IPARRAGIRRE

Kolore beltza hartuko du ANCK Kataluniako Diadaren egunean, irailaren 11n, antolatu duen manifestazioak. Asmo argi bati jarraiki hautatu dute kolorea, borroka eta amore emate eza irudikatzeko. Mezu zuzena helarazi dute, beltza zuriaren gainean: “Amaitu da alderdiengandik ezer espero izatea, herriak eta gizarte zibil antolatuak soilik lortuko du independentzia”. 2017ko urriaren 1eko erreferendumentik hona muga argiekin egin du topo Kataluniako independentismoak, eta instituzioetan dauden alderdien ezintasuna, borondate falta edo borondate faltaren itxura hartzen duen ezintasuna ez doa bat jendartean erroto den konbentzimendu independentistarekin. ERC eta Junts per Catalunya alderdiekiko mesfidantza eta deskontentua ez da berria, baina sektore independentista batzuen artean pazientzia agortzen ari dela dirudi. Vicent Partal VilaWeb hedabideko zuzendariak hala zioen abuztuaren 8ko editorialean: “Dagoeneko Katalunia lotsagabeki autonomista dago boterean. Esquerra Republicana eta Junts, gutxienez haien buruzagitzak, autonomia konstituzionaliki espainiarra ezustekorik gabe eta ahalik eta urte gehienez kudeatzea amesten dute. Eta CUPEk ez daki non dagoen ere”. Bitartean, Generalitateko lehendakari Pere Aragonèsek adierazi du ez duela ANCren Diadako manifestazioan parte hartuko, mobilizazioa “Espainiako Estatuaren aurka beharrean alderdi politikoen eta instituzioen aurkakoa” dela esanez. Independentzia lortzeko “alderdien eta instituzioen arteko batasuna” ezinbestekoa dela gaineratu du Aragonèsek. ANCKo presidente Dolors Feliuren arabera, Generalitateko presidentek Diadako manifestazioan parte ez hartzeak erakusten du Kataluniaren independentzian inplikaturik ez dagoela. Feliuk esan duenez, manifestazioa ez da alderdi politikoen aurkakoa, mobilizazioaren xedea “independentzia egitea” da, eta alderdiei argi uztea haiek burura eramaten ez badute berdin-berdin egingo dutela, “beste bide batzuetatik, beti demokratikoak eta baketsuak”. Feliuren hitzetan gobernuko eta parlamentuko gehiengo independentistako alderdientzat ispilu bat da Diadako manifestazioa: “Programan zeramatzaten aldarri independentistekin deseroso badaude azter dezatela ea berrikusi behar duten edo diskurtso eta helburu horretan inplikaturik jarraitzen duten”.

Jendea kaleetara itzultzea, independentziaren aldarria instituzioetatik eta haiek kudeatzen trabatzen diren alderdietatik askatu eta prozesu independentistako beste eragileena ere, baina zaila dirudi orain dela bost urteko egoerara atzera egitea, kaleak berriz ere ordutako aldarriak errepikatuz betetzea. 2017ko borondate eta indarrak desaktibatu eta integratu dituen prozesuak balio izan du ikasteko eta dagoeneko denboran atzera egitea bezain zaila dirudi termino berdinetan artikulatuko den ziklo berri bati hasiera ematea. ●

1.100

pertsona baino gehiago hil dira ekainetik hona Pakistanen, eurite handien ondorioz. 110 udalerrri urak hartu ditu eta herrialdeko biztanleen %15ak pairatu ditu uholdeen kalteak: 33 milioi pertsonak.

13

euskal preso gehiago Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako espetxeetara hurbiltzea adostu dute Espainiako Gobernuak, Espetxe Zuzendaritzak eta Eusko Jaurlaritzak. 40 bat preso eratuko dira Euskal Herriatik kanpo Espainiako Estatuak espetxeetan.

50

urte egin dituzte irailean Zuberoako bi ikastolek: Sohutako Eperra ikastolak eta Alozeko Basabürüko ikastolak. Mende erdia ospatzeko hainbat ekimen prestatu dituzte datorren ikasturterako.

“Elektrizitatearen merkatuan estrategia berri bat behar dugu arauetan oinarritutako ordena defendatzeko”

URSULA VON DER LEYEN

Elektrizitatearen merkatuan egiturazko erreforma bat egiteko lanean ari direla eta urgentziaz esku hartuko dutela ohartarazi du Europar Batasuneko presidentek.

2022-08-29



“LUR EMANKORRA KONTROLATZEN DUENAK MUNDUA KONTROLATUKO DU”

GUSTAVO DUCH

Elikadura burujabetzaren aktibista.

LA DIRECTA (2022-07-18)

“Jendeak hiri berdeagoak eskatzen ditu gero eta gehiago; Donostiako Marrutxipiko zuhaitz mozketa masiboa bezalako kasuak ulertezinak dira”

JUAN LOPEZ DE URALDE

Aliantza Berdea alderdiko buruak hiriko zuhaitzak babestu eta mantentzeko neurriak eskatu ditu, tartean zuhaitzaren estatutu juridiko bat sortzea.

2022-08-30



TEKNOLOGIA

Ubunturantz



DIANA FRANCO

Hitz honek askorentzat teknologiarekin du harremana, beste askorentzat gizarte eredu baketsu baten ideiarekin. Ubuntu, Desmond Tutu-k Sudafrrikako Apartheidari aurre egiteko sortu zuen moduari lotuta dagoen hitza da.

Pertsonen arteko harremana bitartekatzeko hitza da Ubuntu. Zentzu berean darabilgun teknologia ere sortzen da pertsonen arteko harremanak bitartekatzeko. Gauza da, zein helburuetarako...

Desmond Tuturen hitzetan, Ubuntu duen pertsona bat irekia da eta besteentzat eskuragarri dago, besteei babesa ematen die, ez da mehatxatuta sentitzen beste pertsona batzuk gai direnean eta zer baitetan onak direnean; bere buruaz ziur dagoelako badaki osotasun handi baten parte dela. Osotasun hori kalteztzen da pertsonak batzuek beste batzuk umiliatzeko, gutxiesten, torturatzen edo zapaltzen dituztenean.

Software libreak badu mezu bat bere baitan, lan askoren pilaketa onura mundura ekartzeko; software libreak Ubuntu duela esango nuke. Software libreak, amama-aititek afari on bat prestatzen dutenean bezala, ezagutzaz beteriko teknika multzoa da, bizitza hobetzeko eta gozagarriagoa egiteko pentsatua, bestearenganako adeitasuna eta zaintza barne hartzen dituen asmoa. Eta osotasun horretan ekarpenak egiten ditu.

Sistema oso batean bizi garela ulertzea, nik besteari egiten diodan kaltea sistema osoari egiten diodan kaltea dela ulertzea, eta hori eragozteko pixkanaka-pixkanaka norbera, ahal duen heinean, bere jokabideetan zuzenketak barneratzen joatea, hori da gure bizimoduak Ubunturantz bideratzeko errezeta. "Itakara bidaia" olerkian bezala, beharbada ez gara inoiz helduko Ubuntu, baina bizi helburu gisa izatea bada eskuragarria, nolabait norberaren bizitzan pausoak gidatzeko iparorratza izan daiteke Ubuntu hartzeko ideia. ●

NAZIOARTEA



Langileek nahikoa esan dute Erresuma Batuan

AXIER LOPEZ

Hitzok irakurtzen dituzunerako Erresuma Batuak lehen ministro berria izango du. Inkestek asmatzen badute, Margaret Thatcherren jarraitzaileak aurkeztu den Liz Truss izango da Boris Johnsonen ordezkaria eta haren agintaldi negargarria ahantzarazteko arduraduna. Baina *tory*ek aukeratuko duten pertsona bata ala bestea izan, norabide politikoa ez da aldatuko. Murrizketen eta pribatizazioen bidean sakontzeko asmoa dute. Areago, herrialdearen egoera korapilatsuak jakitun, langileen grebarako eskubidea mugatzearen alde agertu dira hautagai nagusiak, baita sektore batzuetan debekatzeko prest daudela esan ere.

Horregatik, politika kontserbadore eta murriztaile horien aurrean –batzuetan eskuin muturretik oso hurbilekoak– Ingalaterra, Gales eta Eskozian grebak barreiatzen ari dira. Besteak beste, trenbideetako, portuetako, autobusetako, metroko, posta zerbitzuko eta telekomunikazioetako dozenaka mila langilek grebak egin dituzte. Duela aste batzuk zabor biltzaileek ere greba deklaratu zuten, abokatuen gremioak ere geldialdia egin zuen, erizainek hurrengo asteetan erabakiko dute historiako lehen greba nazionala deitu ala ez, eta, bide horretatik jarraituz, beste gremio batzuk ere ari dira planteatzen batzuek

dagoeneko deitu duten "atsekabearen uda"-rekin bat egitea.

Erresuma Batuko sindikatuak grebak areagotzea eta gehiago hedatzea aztertzen ari dira. "Herrialde osoko jendea gauza bera ari da sentitzen. Leku guztietako jendea ondorio berera iristen ari da. Nahikoa da eta ez dugu egoera hau gehiago jasango", adierazi du Unite sindikatuko kide Miles Hubbard-ek. Portuetako langileak ordezkatzeko dituen sindikatu horrek %7ko soldata-igoera proposamenari uko egin dio abuztuaren amaieran, inflazioaren oso azpitik zegoela iritzita. Izan ere, uztailerako inflazioa (%10,1) azken 40 urteetako altuena izan da. Aurreikuspenak ere ez dira batere atseginak, eta batzuek diote 2023. urtearen hasieran %18tik gorakoa izango dela.

Egoera nahasiaren erdian, negua ari da hurbiltzen energia krisi orokor bete-betean. Anticapitalist Resistanze taldeko Phil Hearsek jaso duenez, "Erresuma Batuko Osasun Zerbitzu Nazionaleko 100 zentro baino gehiagoko arduradunek ohartarazi dute energiaren prezioa murrizten ez bada, askok ez duela jatekorik izango edo etxeak berotzerik. Neguan, krisi humanitarioa eta osasun-krisia gertatuko dira, eta horrek gainezka egingo dio honezkero oso kaltetuta dagoen osasun sistemari". ●



Maskulinitate ariketa

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  MONÍK MOLINET

KUBA / Esperimentua egin dute: kalean aurkitzen joan diren gizonei proposatu diete argazki batean agertzea belarria lorez apainduta. Ez da beste munduko ezer, eta hala ere irainduta sentitu da gizon bat baino gehiago, hain da ahula batzuen maskulinitatea.

Era askotako erreakzioak jaso dituzte: oso matxoak direla eta loreekin apaintzea emakume kontua dela erantzun diete batzuek, erantzun misogino eta homofoboak izan dituztela ere kontatu du argazkien egileak, bai proposatutako hainbat gizonengandik, bai inguruan zebiltzan gizonengandik. Beste

batzuek berriz, proposaturikoa onartu eta “maskulinitatearen eraikuntza aldatzeko prest daudela erakutsi dute, sinbolikoki bada ere”, dio Molinetek.

Argazkilariaren hitzetan, “Maskulinitate toxiko eta zapal-tzailea kolokan jartzea ezinbestekoa da, harreman ekitatibo eta osasuntsuagoetara gerturatzeko”.

Kuban egin dute esperimentua, maskulinitatearen pertzepzioak eta mugak aztertzea helburu. Euskal Herrian zer gertatu-ko litzatekeen irudikatzea ongi legoke, gure pertzepzioak eta mugak -kontziente eta inkontzienteak- non dauden jabetzeko.

KOLONIZAZIO ENERGETIKOA

ZER DEN BADAKIZU? EXTREMADURAN

BAI: **ORAIN BERRIZTAGARRIEN**

IZENEAN ARPILATUKO DUTE

Iberdrolak Europako planta fotovoltaiko handiena zabaldu du Espainiako Estatuan, Extremadurako Torrecillas de la Tiesa herrian. 590 megavatioko potentziakoa eta 1,5 milioi modulekin, 334.000 etxebizitza hornitzeko adina “energia garbi” sortuko duela azpimarratu dute. Ez da lurralde hartan eraikitzen den halako lehena, eta megaproiektu gehiago daude bidean. Hainbat adituk “kolonizazio energetikoa” deitu dio horri, munduko toki txiroenetan bezalaxe, Europa hegoaldean laster ezagutuko duguna.

 **URKO APAOLAZA AVILA**

Francisco Pizarroren izena jartzea planta fotovoltaiko bati, zinikoa ere suertatuko zaio bati baino gehiagori, kontuan edukita Trujilloko (Extremadura, Espainiako Estatua) plazaren erdian zaldi gainean eskultura duen konkistatzaileak nolako barrabaskeriak egin zituen Hego Amerikako espainiar kolonietan, urreaz eta zilarraz baliatzeko. Orain boroa, telurioa edo litioa erauzten dituzte multinazionalak hango meatzetatik –Extremaduran litio meatzeen kontra oihukatzen duten bitartean–, besteak beste eguzki plakak egin eta energia “garbia” gordetzeko.

Iberdrolak abuztuaren 10ean iragarri zuen Europako planta fotovoltaiko handiena zabaldu duela Extremadurako Torrecillas de la Tiesa eta Aldeacentena

nera herrien artean. Konpainia elektrikoak urtebeteren buruan 1,5 milioi eguzki plaka edo modulu jarri ditu lehen nekazaritzarako eta abeltzaintzarako erabiltzen ziren 1.000 hektareako eremu zabal batean –1.000 kirol zelai baino gehiago–. Azpiegitura horrekin, Iberdrolak aurreikusi du 590 megavatioko indarra sortuko duela, 390.000 etxebizitza hornitzeko adina, eta “urtean atmosferara 150.000 tona CO₂ isurtzea saihestuko” duela, prentsarako zabaldutako oharrean azaltzen duenez.

Ez da hor amaitzen ustezko abantailen zerrenda: eraikuntza lanek iraun duten bitartean 1.500 lanpostu sortu dira, eta neurriak hartu dituzte agertu diren aztarna arkeologikoak edo hegazti autoktonoen joan-etorriak errespetat-


tzeko. Zer gehiago behar zuen Pizarrok aurpegi garbiketa baterako?

Baina badira halako makroazpiegiturak zalantzan jarri dituztenak. Ecologistas en Acción taldeak aspaldi ohartarazi zuen lurraldeak “sukar fotovoltaiko” bat bizi duela eta trantsizio energetikoaren aitzakian plangintzarik gabeko burbuila baten aurrean dagoela. Areago, Extremaduran “kolonizazio” berri bat gertatzen ari dela diotenak ere badira, beste bat bere historian.

Izan ere, Extremadurako herritarrek lehendik ere badakite esplotazioaren bidez hango baliabide naturalak erauztea zer den. Frankismo garaian, Tajo ibaia-
ren arroko urtegi handiak presoen esklabo lanarekin eraiki ziren, lan horrek orduan balio zuenaren laurdenaren truke,

1.000 FUTBOL ZELAI

Europako planta fotovoltaiko handiena izango da irudiko Francisco Pizarro deiturikoa, 1.000 hektarea ingurukoa. Baina aurretik jada beste hainbat eraikita dituzte, tamaina antzekoa dutenak.



IBERROLA

eta zati bat kondena ordaintzeko erabiliz gainera. Matadero Madrid Arte Garaikideko Zentroak *Dominación y (Neo-) extractivismo* ("Menperatzea eta (Neo-) estraktibismoa") publikazioan aztertu du kasua: kolonizazio frankistaren bidez, aspalditik zetorren "birsorkuntza" hidrauliko baten nahia bete nahi izan zen.

Publikazio hori, *Extremadura Saqueada* ("Extremadura arpilatua", Ruedo Ibérico) liburu ezagunaren 40. urteurrena gogoratzeko argitaratu da. Mario Gabiria soziologo nafar nekaezinak eta beste hainbatek egindako ikerlan horrek Extremaduran zeuden arrakalak agerian utzi zituen; bi hamarkada lehenago Francoren erregimenak martxan jarritako "Plan Badajoz" kolonizazio eta ureztatze proiektuaren ondorioak azaldu zituz-

**Lehenik frankismoko
kolonizazio hidrologikoa
izan zen, gero
nuklearrarenak
jarraitu zion, eta orain
fotovoltaikoa dator**

ten landa-azterketa kolektibo izugarriarekin: "Koloniak lan egiteko *pobladoak* baino ez dira, bizitzeko tokiak ordez", ondorioztatu zuen Gabiriak.

Beste energia krisi bat bizi zen garai haietan -1973ko petrolioarena- eta energia nuklearrik gabe etxeak "kandelekin argiztatu" beharko zirela ziotenen aurrean, liburuak Valdecaballeroseko zentralaren kontrako borroka akuilatu zuen -1979an Villanueva de la Serenaren 50.000 lagun elkartu zituena-.

Hortaz, lehenik kolonizazio hidrologikoa izan zen, gero nuklearrarenak jarraitu zion -1981ean Cáceresen Almarazgo zentrala zabaltu zutenean, bere bi erreaktoreekin, Espainiako Estatuko handiena zen-. Orain fotovoltaikoa dator, Extremaduran urteko sasoi gehie-

netan jaun eta jabe diren eguzki izpiak aprobetxatuz. Hori da aditu talde batek salatzen duena *Cómo evitar la tercera colonización energética de la región* ("Nola saihestu hirugarren kolonizazio energetikoa lurraldean") txostenean.

LEHEN URTEGIAK, ORAIN ISPILU ZELAIAK

Club Senior de Extremadura elkar-teak argitaratu du txostena, enpresari eta akademikoz osaturiko lobbya, eta muturreko ideiak defendatzeko bate-re susmagarria ez dena. Aditu horiek oso kritiko azaldu dira berriztagarriak ezartzeko moduarekin; hasteko ikus-pegia sozial batetik. Azaldu dutenez, Extremadurako industria-ondasunaren erdia elektrizitatearen ekoizpenari dagokio, eta Iberdrolak oligopolio bezala jokatzeko du, baliabide industrial guztien %30 bereak direlako –zentral nuklear eta hidroelektriko nagusiak barne–; al-diz, apenas mantentzen ditu 1.200 lan-postu lurraldean.

Francisco Pizarro plantan eguzki-plakak jartzeko ehunka lagun aritu ziren lanean Torrecillas de la Tiesan, batez ere Andaluziatik joandakoak, eta herrian alokatutako etxebizitza prekariotan lotan. Baina egun batetik bestera desagertu ziren eta orain mantenurako langile gutxi batzuk baino ez daude. Txostenak dioenez, fotovoltaikoaren sektoreak hektarea bakoitzeko 0,05 lanpostu sortzen du, nekazaritzakoak baino gutxia-go, kasu gehienetan. Julián Mora kate-

Francisco Pizarro planta fotovoltaikoan ekoiztutako energia Danonek eta Pepsicok urruneko hirietan –tarteetan Gasteizen eta Iruñean– dituzten lantegientzat izango da

dradunak egindako ikerlan demografiko baten emaitzak ere badakartza: Extremaduran azken urteetan eraiki diren planta fotovoltaiko erraldoien inguruko 20 udalerrietatik guztiek, salbuespenik gabe, galdu dituzte biztanleak.


Sistemak baditu zentzugabekeria gehiago. Sortutako energiaren laurdena baino ez da tokian bertan kontsumitzen, eta beste guztia kilometro askotara garraiatu behar izaten da. Francisco Pizarro plantakoa, adibidez, Danonek eta Pepsicok hainbat hiritan –tarteetan

Gasteizen eta Iruñean– dituzten lantegientzat izango da, Iberdrolak konpainia horiekin hitzartu duenez. "Sortzen den tokian zuzenean erabiltzen den hori bakarrik da 'energia berdea' –diote txosteneko adituek–. Baina administrazioak publizitate engainagarria toleratzen ari dira, 'berde' izena emanez berriztagarriak ez direnekin garraiatu eta kontsumitzen diren energiei".

Torrecillas de la Tiesa, Talaván, Talayuela, Usagre... Eguzki-plaken habee-tzak porlanez josi dituzte herri askotako lurrak, lehen nekazaritzarako edo abeltzaintzarako emankorra zena hondatuz. *El País* egunkariak bere webgunean proiektu fotovoltaiko horiez egindako erreportajerako hitz egin du Angel García, Asaja nekazari gazteen elkarteko kideak: "Enpresa horietako batek lur jabearen atea jotzen duenean loteria to-katzen zaio, baina nekazari bat ere desagertzen da".

Club Seniorrek egindako kalkuluen arabera, berriztagarriekin okupaturiko azalera 85.000 hektareakoa izan dai-teke: "Extremadura gaur egun zelai fo-tovoltaikoen ispiluz jositako lurralde bat da, eta hurrengo urteetan ere hala izango da". Aditu horiek ez dira, noski, energia berriztagarriak erabiltzearen kontrakoak, baina planifikazio eta iriz-pide jasangarririk gabe, kalte sozialak eta ekologikoak aurreko kolonizazioen antzekoak izango direla diote.

Ez dira bakarrik. Antonio Turiel *The Oil Crash* blog ezagunaren ardura-



PLANOAK

Lehengo eta oraingo kolonizazioen bi plano. Ezkerrekoa, "Plan Badajoz" delakoarena, Guadiana ibaiko urak aprobetxatzeko frankismoak egindakoa. Eskuinekoa, Torrecillas de la Tiesako proiektu fotovoltaikoarena. Batean zein bestean Extremadurako baliabideak arplatzea helburu, herritarren beharrak albo batera utzita.



IBERDROLA

ABELTZAINZA


Eguzki-plaka modernoan ondoan artaldeak jarri ditu Iberdrolak bere promozio bideoetan, ezkutatuz lurra hondatu eta despopulazioa dakartela halako proiektuek.

dun eta trantsizio energetikoan asko dakienak ere esana du eguzki parkeak "infernua" izango direla udaran, toki-ko tenperatura asko igotzen delako eta material kutsakorrez eginak daudelako. Turielek artikulua argitaratu du *Contexto* gunean Juan Bordera eta Alfons Pérezekin batera, egungo krisi energetikoaz. Alemaniak hidrogeno berdea inportatuz Europar Batasunetik kanpoko herrialdeei "inposatu nahi dien sakeo energetikoaren plan koloniala", Europa hegoaldeko herrialdeetan ere ezarri nahi dela diote. Eta hor, berriztagarrien industriak –hidrogeno berdea lortzeko

**Kalkulu batzuen arabera
berriztagarriekin
okupaturiko azalera
85.000 hektareatakoa
izan daiteke laster
Extremaduran**

argindar berdea behar baita– buruan dituen proiektu fotovoltaiko erraldoiek pisu nabarmena izango dute.

Horren aurrean zer? Sardinian, adibidez, gasbideen kontrako mugimendutik berriztagarrien kolonizazioa salatzeaz gain, "trantsizio energetiko justua" aldarrikatu dute, horretarako komunitate energetikoak aldarrikatuz –Euskal Herrian hainbat tokitan martxan jarri direnen antzekoak–, herri-tarrek eurek sortutako energia garbia kontsumitu eta onurak komunitatera itzul daitezen, urruneko metropoli batera eraman baino. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com



Thomas Lacoste

ERALDAKETA HELBURU



LEHEN ALDIA DA HERRI BAT ETA ERAKUNDE POLITIKO-ARMATU BAT GATAZKA BATETIK BEREK BAKARRIK IRTEN DIRENA



Uztailak azken egunak dituela bildu gara zinemagilearekin Getari Enea zinema ireki berrian, Getarian. Goxo hartu gaitu bertako arduradun Christelle Vessot-ek. Biharamunean, *L'hypothèse démocratique: Une histoire Basque* (Hipotesi demokratikoa: Euskal historia bat) filmaren emanaldi berezi bat egingo dute, eta lanaren xehetasunetan sakontzeko baliatu dugu aukera: euskal gatazka politiko-armatuaren eta haren eraldaketaren historia kontatzen du dokumentalak, lekukotzen bidez.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO

Apirilean estreinatu zen *L'hypothèse démocratique: Une histoire Basque* filma, eta aretoetan jarraitzen du oraindik. Ez da lorpen makala.

Lehenik Euskal Herrian atera zen, apirilaren 13an, Frantziako estreinaldia baino astebete lehenago. Niretzat oso-oso garrantzitsua zen lehenik zuen lurraldean erakustea.

Testuinguru orokorrari erreparatuta, zinemak oso une berezia bizi du Frantzia. Pandemiaren ostean, jendea ez da aretoetara itzuli, eta momentu biziki gogorra da zinema independentearentzat. Bestalde, bi urteko itxialdiaren ostean

film pila bat atera dira, eta halako inbutu-efektu bat gertatu da: astean 25 filmetik gora irteten dira, eta askoz gutxiago irauten dute aretoetan. Testuinguru horretan atera zen filma, eta hamalaugarren edo hamabosgarren astean oraindik aretoetan ikusi ahal izatea eta hartaz hitz egitea zorte handia da.

Zerorrek filmaren saio askotan parte hartu duzu.

Bai, nik asko lagundu dut filma, uste dut halako dokumentalek eskatu egiten dutela. Zinemek ere badute horren beharra, zinemagileok bertan egon behar dugu.

Bihar iluntzeko saioa 44. mintzaldia izango da; iruditzen zait aski bide luzea egin dudala filmaren harrerari buruz hitz egin ahal izateko.

Eta nolakoa izan da harrera? Espero zenuen modukoa?

Hasteko, jende asko etorri da. Eta oso harrigarria izan da. Nik uste nuen, Euskal Herriko harrerari dagokionez, historia honek eragiten dion jendea etorriko zela batez ere: militanteak eta horien inguruko zirkulu zabalagoko pertsonak esan dezagun. Baina hortik harago joan da, askoz harago. Eta uste dut horrek zerikusia



Thomas Lacoste

BORDELE (FRANTZIA), 1972



Zinegilea eta editorea. Pentsamendu kritikoari buruzko hainbat proiektu bultzatu ditu, besteak beste, *La Bande Passante*, pentsamendu kritikoen, praktika alternatiboen eta sorkuntza garaikideen nazioarteko sarea. 60tik gora elkarrizketa eta film egin ditu, hala nola *Notre monde* (Gure mundua, 2013), gai sozial eta politikoen inguruan. 2017az geroztik, Euskal Herriko gatazka politiko-armatua lantzen ari da, eta hiru ikus-entzunezko pieza aurkeztu ditu horren harira.

duela kontu zehatz batekin: gatazkari buruzko kontakizunaren eta iturrien gabezia, eta herritarrek gatazkari buruzko kontakizun osoago bat izateko beharra.

Bestalde, desadostasuna edo iritziz aniztasun handiagoa izango zela espero nuen, eta eztabaidak izan dira, bai, baina desadostasunik ez. Ezezagutza handia aurkitu dut, eta uste dut horixe dela zer pentsatua eman beharko ligukeen gauzetako bat.

Izan ere, ezezagutza hori ez duzu soilik aurkitu gatazkatik "kanpo" egon direnen artean, ezpada barrutik bizi izan dutenen artean ere bai.

Hala da, bai. Frantzian nabarmenagoa izan da, jakina, baina zirkulu militanteetan ere bai ikusi dut. Honen harira pasadizo bat kontatu nahi nuke, Bordeleko saio batean gertatu zen. Emakume gazte euskaldun batek hartu zuen hitza, esan zuen militanteen familia bateko alaba zela, eta lehen aldia zela bere historia azaltzen ziotena, bere herriaren historia azaltzen ziotena, bere historiaz berriro jabetzeko aukera zeukana. Niretzat horrek laburbiltzen du filmaren harrera. Eta arrazoirik behar baldin bazen filma egiteko, arrazoi mordo bat zegoen, baina horra bat. Zuen historia kolektiboaren puska bat faltan izan duzue.

Nolatan sortu zen film honen ideia?

Galdera ona da hori, eta ez da erantzuten erraza. Hainbat arrazoi nahasten dira eta protohistoria 1970eko hamarkadan hasten da, baina esan dezagun aspalditik izan dudala harremana lurralde honekin eta bertako jendearekin, eta gatazkak eta horien konponbidea ere betidanik interesatu izan zaizkidala. Dena den, filma egiteko funtsezko arrazoia beste bat izan da: zer-nolako ikusezintasuna eta estigmatizazioa egon den gatazka honen eta horren eraldaketaren inguruan.

Urratsez urrats joango gara. 2011. urtea mugarri bat izan zen zuretzat. 2011ko urriaren 20an, borroka arma-

tuaren amaiera iragarri zenean, eta bide orri bat zegoenean Espainiako eta Frantziako estatuekin batera egin beharreko urratsekin, eta bi estatu horiek ez zirenean azaldu... niretzat hori oso deigarria izan zen jada. Baina horren ostean ezarritako dinamika alde bakarrekoa, euskal gizarteak eta ETA antolakunde politiko-armatuak egindako keinua alegia, bakarra da historian. Lehen aldia da herri bat, erakunde politiko-armatu bat, gatazka batetik bera bakarrik ateratzen dena. Pentsatzekoa litzateke egunkari guztietako azaletan agertuko zela biharamunean, baina ez zen hala izan. Are gehiago, estatuek entzungor egin zioten keinuari, eta nire iritziz horrek ondo erakusten du zer puntutaraino eraiki nahi izan duten barne-kolonia bat zuen lurraldean. Erregimen frankistaz ari naiz. Zer-nolako premia izan duten barne-etsai bat eraikitze-ko trantsizio demokratikoa delakoaz geroztik.

Hain zuzen ere, 2016an hasitako armagabetze-dinamika ere mugarri bat izan zen zuretzat.

Bai, 2016ko abenduan Euskal Herrian nintzen. Euskal gizarte zibileko hiru pertsona atxilotu zituzten Luhuson, zer-eta armak entregatzen saiatzeagatik, nor-eta beren engaiamendua-

gatik –indarkeriarik gabeko engaiamendua– ezagunak diren hiru pertsona. Eta

hara non, gau hartan bertan, Bruno Le Roux-ek, Frantziako barne-ministroa garaian, adierazpen labur-labur batzuk egin zituen, zinez lotsagarriak, eta esan zuen Espainiako zerbitzu antiterroristarekin elkarlanean kolpe gogorra eman ziote-

la ETAr, zuzendaritzako hiru kide atxilotuz. Ondotxo zekien hiru pertsona horiek nor ziren, eta ez zirela erakunde armatu bateko kideak. Ikusi beharko da ea Pariseko 16. epaiketagelak nola azalduko dien herritar frantsesei ekintza terroristatzat hartu duela armak neutralizatzeko eta baliogabetzeko ekintza bat.

Auzia ardatz hartuz, *La paix maintenant, une exigence*



populaire (Orain bakea, herriaren eskaera) film laburra kaleratu zenuen 2017an bertan [ARGIaren webgunean ikusgai dago].

Lau egunen buruan atxilotuak askatu zituztenean –niretzat, lau egun horiek terrorismoa dira–, haiekin bildu nintzen, defentsarekin lagundu niezaiekeela koan, magistratu ezkertiar ugari ezagutzen dut eta. Jakinarazi zidaten armagabetzearen dinamika horrekin bururaino jarraitzera deliberatuta zeudela, eta nik esan nien agian beraientzat oso argi zegoela beren ekintzaren esanahia eta erakundeak desarmatzeko zuen borondatea, baina lurraldetik kanpo ez zegoe la hain argi. Eta Madrileko eta Pariseko komunikazioak bake-artisten kontaktuzuna desitxuratu zutela, herritarrei ez iristeko. Ondorioz, proposatu nien kanpo-komunikazioa beste modu batean lantzea, eta, nahiz une hartan guztiz bestelako proiektu batekin hasteko asmoa

izan, lanari ekin nion. Hala sortu zen 23 minutuko film laburra, trilogia baten lehen pieza. Oso azkar egin genuen, internet bidez zabaltzeko.

Arrakasta izan zuen, ezta?

Bai, asko zabaldu zen, eta dirua bildu genuen atxilotuen defentsarako. Ondoren luzera ertaineko film bat egin genuen, nazioarteko telebistetan zabaltzeko, *Pays Basque et Liberté: Un long chemin vers la paix* (Euskal Herria eta Askatasuna: Bide luzea bakerantz) izenekoa. Gatazkaren historiari eta horren eraldaketari buruzko sarrera bat zen, eta batez ere alde bakarrekoa esaten zaion azken fase horretan parte hartutako eragile internazionalen ikuspegiak biltzen ziren. Garrantzitsua iruditzen zitzaidan halako ikuspegi ekumeniko eta nazioarteko bat ematea –zuen historiari eta eraldaketari zilegitasuna ematen diola iruditzen zait eta ideia hori nazioartean hedatzea.

Film laburra, telebistarako film ertaina eta dokumentala bera elkarrizketetan oinarritzen dira batik bat. Zein izan ziren elkarrizketatuak hautatzeko irizpideak?

Irizpidea aski sinplea zen: gatazkan edozein posiziotan egon direla ere –eragi-leak, biktimak, negoziatzaileak, aholkulariak, nazioarteko begiraleak–, gatazkaren eraldaketan parte hartu izana. Horixe zen nire muga. Eta horregatik ez dut lanik egin barne-ministerio espainiarrarekin ez frantsesarekin, ez baitute parte hartu eraldaketa horretan. Bueno, parte hartu dute, baina eraldaketari kontra egiteko, eta horregatik ez dut haien pentsamenduaren lekukotzarik grabatu. Bestalde, haien ikuspuntua egunero jasotzen dugu komunikabideetan.

Material piloa bildu zenuen.

Bai, 70 lagunetik gora elkarrizketatu nituen, denera 315 ordu dauzkat. Izugarri piloa.

Bi orduko dokumental batean ez da dena sartzen. Zer egin nahi zenuke soberan geratutako materialarekin?

Material horrekin beste hamaika film egin litezke, baina ez dagokit niri, eta nitaz nekatuko zinatekete gainera. Uste dut, hasteko, herritarrei itzuli behar zaie la material hori, beren historia, eta horretarako plataforma digital bat sortu nahi dugu material hori guztia bertan egon dadin, ikertzaileen, ikasleen eta herritarren eskura. Izan ere, materiala falta da. Sorbonako unibertsitatean [Paris] saio bat egin genuen, eta argi geratu zen ikasleek eta ikertzaileek ez dutela artxiborik eskura, zeren, Frantziako Estatuan, lege antiterroristaren pean geratzen diren materialak konfiskatuta egoten dira 75 urtez. Elkarrizketen osotasuna eskura edukitzea oso aberasgarria izango litza-teke.

Webgune horren egitasmoa martxan da?

Finantzaketa bila gabiltza berriro ere, finantzaketa publikoa zein pribatua, eta espero dut oso epe motzean proiektua mamitu ahal izatea.

Filma, oraingoz, Euskal Herrian eta Frantziako Estatuan zabaldu da, eta nazioarteko beste leku batzuetan erakutsi duzue emanaldi berezietan (Grezian, adibidez). Espainiako Estatuko aretoetara zabaltzeko asmorik baduzu?

Asko gustatuko litzaidake filma aretoetan zabaltzea, Katalunian adibidez. Baina uste dut interesgarria izango litzatekeela orobat Espainiako Estatuko beste erkidego batzuetan ere, eta asko gustatuko litzaidake filma estreinatu ahal izatea. Momentuz, ez dakigu. Badakit eztabaida biziak piztuko liratekeela eta ziur aski ez ditugula bihar bertan proiektzioak egin ahal izango Madrilen. Baina saiatzen ari gara. Eta hori nabarmendu nahi nuke elkarriketa honetan: banatzaile independenteen bila gabiltza, nahikoa sendoak direnak dokumental hau biztanleria espainiarrei helarazteko. Dokumental hau ez da historia handi bat, baina ekarpen historiografiko bat egiten dio gatazka honen une honetako eta etorkizuneko historiografiari. Uste dut garaia dela besteen kontakizunak ezagutzeko. Gaur egun Espainiako komunitateek oso ondo ezagutzen dute Espainiako estatu sakonaren kontakizuna; bada, helduak baldin badira, garaia dute gatazkako eragileen, biktimen eta negoziatzaileen kontakizuna ere ezagutzeko.

Elkarriketetz gainera, artxiboko irudiak era baliatu dituzu dokumentalean, besteak beste, manifestazioetako eta hitzaldi politikoetako irudiak eta herritarren adierazpenak.

Dokumentalak egitearen plazeretako bat artxiboetan murgiltzea da, iragana



berriro biziberritzeko aukera ematen baitu. Biziberritzen dituzu pentsamoldeak, izakiak, emozioak, hildakoak. Niretzat poz handia izan da artxiboa erabiltzea, eta, bestalde, baliagarria izan da gauza bat helarazteko, niretzat oso garrantzitsua zena: nola, 70eko hamarkadan, euskal biztanleriari oso modu positiboan eragin zion askapen-borrokak, eta

nola borroka horrek gizartearen babes handia zuen. Agian euskal herritarrentzat argi samar dago, baina ez hainbeste espainiarrentzat edo frantsestentzat, eta oso-oso garrantzitsua iruditzen zitzaidan hori gogora ekartzea.

Artxiboko irudien artean, niri, Burgoeseko prozesuari buruzko eztabaida-saio bat egin zait bereziki deigarria. Frantziako telebistako saio bat da, eta besteak beste Gisèle Halimi abokatua agertzen da.

Bai, eta horrek, hasteko, erakusten digu telebistako eztabaiden kalitatea izugarria zela garai hartan, intelektual kritiko- ugaritasunari dagokionez. Gisèle Halimi duela gutxi hil da, baina horren aurretik, noiz ikusi genuen azkenengo aldiz telebistan hizketan? Zigarroa ezpainetan eta serio pentsatzen? Azken urteotan ez dugu halakorik ikusten, telebistan ez dago halako kalitateko debaterik, eta horrek zer pentsatua eman behar digu gure espazio demokratikoei buruz. Gaur egun zer funtzio betetzen dute telebistako eztabaidek, ez baldin bada neo-

liberalismoa sendotzea?

Halaber, garaiko telebista-saio irekiago horietan beste kontu bat ikusten dugu: sasoi hartan ez zintuzteten terroristatzat hartzen; aldiz, zuei buruz edo gatazkako eragileez ari zirenean, erresistenteak zinetela esaten zuten. Eta niretzat oso garrantzitsua zen hitz hori nabarmentzea. ●



enherkom energia garbia, segurua eta herrikoia sortzeko jaio da Hernanin!

labur.eus/enherkom

EGIN ZAITEZ BAZKIDE



enherkom 
argi eta garbi

Energian burujabe izateko momentua da, bakoitzak txikitik eraginez.



Globalizazioaren pitzadura



MIKEL ZURBARANO
EKONOMIALARIA

Azken hiru hamarkadetan eza-gutu dugun Ameriketako Estatu Batuen (AEB) lidergopeko globalizazioaren aroa zalan-tzan dago. Nazio interesen gainetik ordenu global liberala lehenesten duen globalizazioa ahitzearen atzean faktore eta arrazoi ugari daude. Hiperglobalizazioaren atzerako zantzuak 2008ko finantza krisiarekin antzematen hasi ziren. Kanpoko merkatuetako bere presentzia ahaztu gabe, barne eskariaren hazkundeari esker barneko merkaturak birzentratzen hasi zen Txina orain hamar urte. Bestalde, azken urteetako Estatu Batuetako kanpo merkataritzaren motelaldia aipagarria da. Atzerriko inbertsioak ere 2008ko krisiaren ostean izoztu egin ziren eta azken bost urteetan atzera egin dute.

Produkzio lerroak nazioartean banatzen dituzten mundu mailako balio kateak ahultzen ari dira produkzio kate osoa kontrolatzeko zailtasunak handitzen doazen neurrian. Honi gaineratu behar zaio pandemiak eragindako talkak munduko balio kateetako osaketa berria sustatzen duela, lurraldearteko birbanaketa eta nazioarteko garraioaren zailtasunak oinarri hartuta. Larrialdi klimatikoari eman beharreko erantzunak ere orain arte munduko produkzio kateen eraldaketan eragina izango du

Txinaren nazioarteko posizioa hobetzeko ahaleginak oztopatzea da politika berri honen xedea

etorkizun hurbilean. Beraz, produkzio-gintzan aspaldian agintzen zuen muturreko globalizazioaren logika aldatzen ari da eta etxerako edo hurbileko herrialdeetako bidea jorratzen ari da hein handi batean.

Globalizazio neoliberalaren gehiegikeriek arlo politikoan populismoen igoera ekarri dute eta arlo ekonomikoan Estatuaren itzulera, hala nola berrindustrializazioarekin, nazio subiranotasuna indartzearekin –erdieroaleen, baterien edo botiken sektoreko industri politikak adibidez–, politika sozial, energetiko eta ingurugiro politikak sustatzearekin.

Dena den, globalizazioaren itxura aldatetarako arrazoi ekonomikoek ez ezik irizpide geopolitikoek ere garrantzia nabarmena dute. 2018 urtean AEBetako lehendakariordeak, Mike Pencek, gaur egun Errusiarekin gauzatzen ari den baita Txina helburu duen uztargabetzea-

ren aldeko aldarria egin zuen. Txinaren nazioarteko posizioa hobetzeko ahaleginak oztopatzea da politika berri honen xedea. Uztargabetzea ekonomian, teknologian, ezagutzan eta arlo politikoan sustatu nahi dute. Horretarako, ziurtasunaren eta bere sistema politikoaren izaera antiliberalaren argudioak erabiltzen ditu Ipar Amerikako herrialdeak Mendebaleko herrialdeen elkartasuna erakartzeko eta nazioartean bere posizio hegemonikoa indartu eta finkatzeko.

Txina, bere aldetik, bere kanpo estrategiaren norabidea aldatzen ari da. Mendebaleko herriekin lankidetzara erabat apurtu gabe Hegoa-Hegoa ardatza indartze bidean dabil gero eta gehiago. Ardatz alternatibo honetan Txinak bere ekarpena arlo ekonomikoan, finantzarioan, merkataritzan... bideratzen du, lehengaiak eta lidergo ekonomikoak eta politikoa eskuratzearren truke. Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrikako herrialdeek osatzen duten BRICS elkar-tea, garapen bideko herrialdeen arteko merkataritza eta inbertsio elkartruketarako funtsezko eragile bihurtzeko bidean da. Industrian eta arlo teknologikoan bistakoa den Txinaren bultzada ekonomikoak garapen bideko herrialdeen artean erreferentziazko lidergo posizioa eskaintzen dio, baita Asian bertan ere Japoniaren aurretik. ●

Elkano eta gu (eta nor gara gu?)



SONIA GONZALEZ
IDAZLEA ETA ABAR

Rap emanaldi txiki bat eman zuten lagun bik aurrekoan, plazan eta musutruk, herri bazkari xume baten ostean. Kanta batekin gogoratu ziguten herrikide bat, gazte-gazte bat, berriki hila zela. Dirua batu behar zen gorpua jaioterri-
ra itzultzeko. Ai, hori ama hori! Semearen azken musuak masaila oraindik erretzen diola jasoko du hilkutxan zerraldo.

Kioskotik harago, Paskual Abaroa, je-sarrita, ohorezko tokian, herriko ongile handiari eskerrak ematen dizkion plaka gainean. Ileak lastu zitzaizkidan. Jakaren mahukak jaitsi eta zigarroa poltsatik atera, eztarriko marapiloa ketan itotzeko. 1888an inauguratutako herriko iturriei odola darie oraindino. Abaroa, hainbat herritan gorai-patzen diren beste “ongile” batzuk bezala, pertsonak hiltzen, bahitzen, bortxatzen eta saltzen aberastu zen. Ez zituen eskuak zuzenean lohitu behar izan; bankari moduan, seguru bula bat baino gehiago erosi ahal izan zituela bere pekatuak garbitzeko, dirua ahurka biltzearekin batera.

Artikulu hau heltzen zaizuenarako, zuo-tako batzuek, seguruenerik, ikusi ahal izan(-go) duzue delako eskultura hori. Aurtengo Antzar Egunean askoz jende gehiago bertaratuko da Lekeitiora. Hilaren 6a jai egun berria dugu: Elkano eguna.

Inork ez du ukatzen Abaroak herria diruz ondu zuenik. Zertarako botere ekonomiko-a, ez bada botere politikoa ere lortzeko eta irudi soziala hobetzeko? Sasoi hartan dohaintzak edo donazioak bide bakarra ziren; orain badirudi batzuek “ohitura zahar” hori berreskuratu nahiko luketela. Galdetu, bestela, Amancio Ortegari: zergak denok bezala ordaintzeak ez du aparteko estatusik ematen, herriari “opariak” egiteak bai, antza; areago, beste latitude batzuetan –gure auzokideen jaioterrietan– egindako eskubide urraketak estaltzen badira.

Era berean, inork ez du ukatzen hiru mende lehenago Elkanok egindakoa. Inork ez du eskatzen ordukoak gaurko begiekin epaitzea, testuinguru historiko eta sozial barik. Kontrara, hori aurpegiratzen dutenak

dira, hain zuzen, testuingurua nahita ahaztea erabaki dutenak. Historia, gehienek uste ez bezala, ez da aurreko gertakarien gomutapen edo jakintza hutsa; historiak oraina ulertzeko eta etorkizuna aurreikus-teko gakoak ematen dizkigu. Norberaren bizitzan be-zala, ikasitako guz-tiak datorrenenerako prestatzen gaitu.

Baina bertsio akritikoa erosi eta saldu da institu-zio eta erakunde guztietan, adosta-sun ia erabatekoaz. Zertarako balio du sasoi “gogoangarrien” gorai-patze huts eta hutsalak? Zertarako balio du inperio koloniza-tzaile honen gesta-kantak notaz nota errepikatzeak? Garaileak historia kolektiboa berriz ere lapurtzeko, garaituak ekuaziotik desagerrarazteko, Afrika eta Ameri-
ketako espoliazioaren eta girgiluen katea –ordudanik ondo luze dato-rrena– lurperatzeko. Egia osoare-kiko erantzukizuna ezin da alboratu apeta ematen digunean.

S eta I, masail banatan erre-izkiriaturik. Sirte Iure: eskubide bakoa. Mendeetan zehar bitarteko ezberdinak, baina beti emaitza berbera, han zein hemen. Bien bitartean, hartu plazera betiko ahaztuak berriro ahazten dituzten gesta-kanta gozatueta, euskal herritar horientzat guztientzat itzelezko afruntua izan ote daitekeen zeuen buruari galdetu barik. Harakoan defendatzen zen bezala, baliteke gure herrikide horiek minik ez hartzea, baliteke euren azal ilunagoak sentipenak galaraztea eta baliteke, akaso, sakon-sakonean eta gure barne-barnean ez ditugula geure artekotzat aitortzen balizko “harrera herri” honetan. Baliteke. ●



PAULA ESTÉVEZ

Udazken honetan mundua amaituko omen da



ROSER ESPELT ALBA
EKONOMIALARIA

Etengabe esaten ari zaizkigu prestatu beharra dugula, uda honen ondoren hainbeste beldur eragiten duen –batez ere probreengan– gaitz hori baitator: krisia. Macronek berak esan du "oparotasunaren aroaren" amaierarako prestatu behar dugula. Ekonomialariok ez dugunez etorkizuna ikusteko kristalezko bola magikorik, kosta egiten da garia lastotik bereiztea. Bereziki, gaian adituak direnen ahotsa sistema kapitalistaren helburu propagandistikoek bideraturiko espekulazioetara mugatzen denean. Baina zer da benetan datorkiguna? Benetan al gaude atzeraldi sakon baten atarian?

Lehenengo galderari zehatz-mehatz erantzutea zaila bada ere, bistakoa da etorkizun hurbilak ez duela itxura onik. Hainbat elementu daude mahai gainean: lehenik eta behin, energiaren prezioa, gai-nontzeko prezioen igoeraren erantzule nagusietako bat, baliteke apur bat jais-tea, baina argi dago energia merkearen aroaren amaieran gaudela. Horrek gure patrikei eragingo die, baina bereziki nabarituko da industriari eta mundu mailako merkataritzan. Esanguratsua da, ildo honetan, Alemaniaren kasua. Euroguneko motor ekonomikoak hain bereizgarri zuen superabit komertziala, energia merkearen –gas errusiarra tarteko– eskuragarritasunean oinarritzen zena, galdu du eta defizit egoeran dago. Prezioen igoera

orokorrari erantzuteko, Erreserba Federalak eta EBZk interes-tasak igo dituzte. Egoera larriagotu besterik egiten ez duen neurria, finantza-kapitalaren interesak babesteko besterik ez baitu balio. Interes-tasen igoerak, munduko zorra BPGaren %350tik gora dagoen honetan, galbidera eraman ditzake familia asko, enpresa asko, baina baita herrialde osoak ere. Esaterako, Brasil, Turkia edota Argentina bezain herrialde garrantzitsuak Sri Lankaren bide beretik joateko arriskuan daude.

Eta zeri egin beharko diogu aurre? "Ugaritasunaren aroa" amaitzeak, urritasunaren aroaren hasiera esan nahi du. Baieztapen honek bat baino gehiago harrapatuko zuen bere oparotasunaren aroa ea noiz izan zen ezin asmatuta. Krisi arreakuspen katastrofista orori dario shock doktrinaren kiratsa eta dagoeneko martxan dira propaganda diskurtsoak gutxi batzuen mendeetako oparotasunaren erresakaren kostuak gehiengo batek bere gain har ditzan, beste behin ere. Horren aurrean, birpentsatu beharko dugu zer den funtsezkoa eta zer behar dugun, zein sektore murriztu behar diren (edo erabat desagertu, armak eta petrolioia kasu) eta zein indartu. Aldaketa sahiestezina da eta gatazkarako prestatu beharko dugu, edozein gizarte aldaketak berezkoa baitu. Soberan duten horiek nekez egingo baitiote uko gehiengoak faltan dugun horri. ●

Plas-plast



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Gustuko dut telebista isiotuta, beste zeregin batzuetan ibiltzea. Askotan jaramon egin barik, marmarra hondoan, *zappingik* ez. Iragarkietan entzuten nuen "Disney plas", baina adi ez nengoenez, ez nekien zer zen.

Plas gora, *plas* behera, halako baten konturatu nintzen "plus" zela, +.

Plas? Gero konturatu nintzen *Heitxiou*, *Bibizi* eta *Zienen* esaten zutela kazetari batzuek, euskaraz eta gaztelaniaz, HBO, BBC eta CNN telebista kateez zihardutela.

Ez dakit zergatik dagoen modan hori, ingelesa badakitela erakusteko? Dena

hobea delako ingelesez? Ala morrontza hutsa da?

Beste leku batzuetan ere gertatzen da halakorik? Lehen, hemen ez. IRA, ira esaten zen, ez *aierei* edo dena delakoa. Oraindik gogoan dut ezagun frantses batek frantsesez ETaz galdetu zidanean: ez nion ulertu e, t, a banan-banan esan zidalako, hala erabiltzen dutelako.

Baina akabua izan zen Amaiurren egindako "Libera State" antzerkiaz ziharduela esatari batek Libera *steit* esan zuenean! *Steit*. Orduan bai, maitailean egingo nion gogotsu kazetariari *plas-plast*. ●

Ez dut besterik nahi



MAIALEN ARTEAGA
KAZETARIA

Gehiegizko askatasuna garesti ordaintzen da. Garesti ordaintzen dugu. Hori sinestarazi nahi digute behintzat. Bai, subjektu zehatz batzuek askatasuna garesti ordainduko dugu erregimen patriarkal honetan. Mugimendu feministak aurreikusita zuen uda hau larria izango zela, pandemia eta geldialdi horren itzulerak gogor kolpatuko zituela betiko periferietako subjektuak. Albisteetako erasoak eguraldi iragarpena bezala irakurtzera ohitu gara, gai ordeneko puntu bat balira bezala: izan eraso fisiko bat, bortxaketa bat, bikoitekide ohiak emakume bati emandako jipoi bat, beste bat ziztatu dutela ez dakit nongo jaietan, neska gazte batzuk drogatututela beste nonbait... Nire buruak ere zerrenda bat egiten du, eta ohartu gabe "beste bat" esatera ohitu gara. Ez dut besterik nahi.

Muturreko anormaltasun gisara irudikatu dute uda hau, baina betiko egitura sozial, ekonomiko eta politikoek erakitakoa da. Ez delako uda hau, ez delako gure bizitzetatik at dagoen anormaltasun bat, gure egunerokoa da. Arazoa ez, baina soluzioa gure askatasuna mugatzean omen dago. "Jakín bagenekien egoera

Gonen azpitik frakak
jantzi ditut Bilboko
jaietarako, badaezpada.

Gizonekin egin
dut buelta etxera,
badaezpada, eta
botilatik edaten aritu
naiz, drogatu ez
nazaten

honakoa zela eta noski, nola ausartuko gara parrandan gizonik gabe ateratzea", edo "nola okurritu zaigu bezperako gertaerak ez gogoratu arte mozkortzea", edo "gure edalontziak ez zaintzea", edo "gona hain laburrekin ateratzea", "atentzioa deitzea", "berandu eta bakarrik etxeratzea", "gau horretan ezagututako

gizon batekin ligatzea", "beldurrik gabe ateratzea"... eta prebentzio neurri bezala saldu diren beste hainbeste. Egin behar horiek guztiek, ordea, fokua gudan dute. Arriskutsu kontsideratu diren praktika batzuk utzi behar ditugu gure gorputza eta bizitza salbu egoteko. Baina egiteko esaten digutena eginda ere, errelatoak ondo josi ditu posizio guztiak. Egiten duguna egiten dugula, gure erantzukizuna, gure ardura eta gure errua da beti.

Funtsezkoa da ulertzea diskurtsoa nondik eraikitzen den, nola egia bat birproduzitzen duten batzuek egia absolutu bilakatzeraino. Barneratu dugu zeinek izan beharko lukeen beldurra, zein subjektuk egin ditzakeen aurrez aipatutako praktika horiek eta zeinek ez. "Esan gezur bat mila aldiz, errepikatu hitzez hitz, handik gutxira ikusi egia bihurtzen". Eta ohartu naizenerako, hau guztia salatzen dabilen neska honengan ere egia da. Gonen azpitik frakak jantzi ditut Bilboko jaietarako, badaezpada. Gizonekin egin dut buelta etxera, badaezpada, eta botilatik edaten aritu naiz drogatu ez nazaten. Sinistarazi didate hori dela giltza "besterik egon ez dadin", baina ustezko giltzak ez du funtzionatzen. ●



2022-2023

EUSKARAREKIN
IRABAZI EGINGO
DUZU

B
Bilbao

Matrikula zaitez euskaltegian!



Irailak 24
Abenduak 18

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea:



Laguntzailea:



AHT Nafarroan

BETI FINANTZIAZIOAN KATEATUTA

Noizko bukatuko dira abiadura handiko trenaren (AHT) obrak Nafarroan? Inork ez daki, arrazoi askorengatik gainera. Agintariek behin eta berriro uzten dituzte datak erortzen, baina gero eta gutxiago, gero eta barregarriago geratzen dira eta. Urrats txikiak, aldiz, ematen ari dira, aurreikusitako 213 kilometroetatik 25 bukatuta daude dagoeneko.

 **XABIER LETONA BITERI**



Ez dago berritasun gehiegirik, baina apurka hainbat kontu zehazten ari dira, hala nola, Iruñeko Etxabakoitz auzoko tren geltokian, eta honek ekarriko duen hirigintza proiektuan. Tren lasterrak handi edo erraldoi bihurtzen du bidean harrapatzen duena, izan zubi, tunel, biaduktu edo auzo, eta Etxabakoitz ez da salbuespen: 10.000 etxe berri egitea aurreikusten dute. Azalduko ditugu aurrerago geltoki berriaren ezaugarriak.

Etxabakoitz buruz asko hitz egiten bada, dagoeneko ez da arazo gune nagusietakoa. Azken 20 urteetan korapiloak ugariak izan badira ere, orain liskar nagusia korridorearen azken tartean dago: nola lotuko da azkenean Nafarroako AHT Euskal y-arekin? Komeni da aipatzea, halaber, proiektua dagoeneko prestazio handiko trena deitzen dela ofizialki, bidaiariez gain merkantziak eramatea ere aurreikusten duelako.

GASTEIZTIK ALA EZKIOTIK

Aldiro-aldiro aktualitatera jauzi egiten duen erbia da lotunea, eta 2023ko udal eta foru hauteskundeak jomugan, orain berriz atera da indartsu Nafarroako politikan. Nafarroako Gobernuaren barne giro ozpinduan ere gai garrantzetakoa da. Espainiako Gobernuarena da azpiegituraren ardura –proiektua zein finantzazioa– eta, askoz merkeagoa denez, oraingoz Gasteizko lotunea hobesten du. Ezkiora iristeko Aralar azpiko tunel amaigabeak dardara eragiten du Sustapen Ministerioaren altxorrean.

Uda aurretik ziren biltzekoak Iruñea, Gasteiz eta Madrilgo gobernuak, hortaz eta beste hainbat kontuz jarduteko, baina bilera atzeratu egin zen eta uda ostean bilduko bide dira azkenean. UPN-rentzat aukera ederra da ezpal horiekin sutea egin eta Maria Chivite lehendakariaren aurka egiteko. Geroa Baik gobernu barrutik astintzen du gaia. Indar bien aburuz, lotunea bai ala bai Ezkiotik egin behar da, bestela, Gasteiztik egitekotan, “horrek Europako trenbide korridoretik kanpo utziko luke Nafarroa”. Horretan bat egiten dute Geroa Baik senatari Koldo Martinezek eta UPNko buru Javier Esparzak, eta gobernu barrutik edo kanpotik, oposizioa egiten diote duda mudan dabilen PSNri.

Nahasmena ez da harritzekoa. 2018an Iñigo de la Serna PPko Sustapen Ministroa Iruñean egon zenean, PPk Gasteizko lotunea hobesten zuela iragarri zuen. Javier Esparza zen orduan ere oposizio



2019ko martxoan Altsasun tren sozialaren alde egindako manifestazioa.

Ezkioko lotura
Gasteizkoa baino lau
aldiz garestia goa da:
Ezkioko 55 kilometroek
2.061 milioi euroko
kostua lukete
eta Gasteizko
75 kilometroek
704 milioi eurokoa

buru Uxue Barkosen gobernuaren aurrean, baina ez zuen txintik esan. PSNk ere begi onez ikusi zuen Gasteiz. Bi indarrek, oster, 2019ko foru hauteskundeetako programetan Ezkioko aukera lehenetsi zuten, Geroa Baik beti egin izan duen moduan.

Kontuak kontu, sozialistek gidatzen duten Espainiako Gobernuak udaberrian berretsi zuen Gasteizko hautua, naiz eta argi azpimarratu zuen oraindik ez zegoela ezer erabakita. Hauteskunde programari muzin eginez, oraingoan PSNk Gasteizko aukera ez duela gaizki ikusten aipatzen du, eta Bernardo Ciriza Lurralde Kohesiorako foru kontseilariaren esanetan, berdin da konexio bat edo bestea, “garrantzitsuena egitea da”.

21 KILOMETROKO TUNELA ARALARREN

Zenbakiei begiratuta, hobeto ulertzen dira Madrilgo Gobernuaren arazoak, azken finean, hark ordaindu behar baitu azpiegitura. Ezkioko lotura Gasteizkoa baino lau aldiz garestia goa da: Ezkioko 55 kilometroek 2.061 milioi euroko kostua lukete eta Gasteizko 75 kilometroek 704 milioi euro. Bestela esanda, Ezkiokoan kilometro bat eraikitzeak 37,4 milioi euro balio du, eta Gasteizkoan 9,4 milioi. Arrazoiak batez ere tuneletan daude, Ezkiokoan 30 kilometro tunel bidezkoak lirakeke, Aralar mendikatea azpitik zeharkatzeko. Horietako tunel bat 21 kilometrokoa da, Euskal Herrian inoiz egin den handiena eta Espainiako Estatuko bigarrena (luzeena Guadarramako tunela da, 58 kilometrokoa).

Koldo Martinezek uztailaren amaieran esandakoaren arabera, Ezkiokoa askoz garestia goa litzateke, baina haren ingumen eragina txikiagoa ere bai, ibilbide gehiena tunelez egingo litzatekeelako. Senatariak tunelek ingumen eraginik ez dutela iradokitzen du, baina ekologia eta ingurumen zaintzan aritzen diren askoren ikuspegia oso bestelakoa da. Horren adibide da, esaterako, 2016an Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Ingurumen Justiziaren Atlas Globaleko taldeak (ICTA) azterketa bat egin zuela munduan ingumena gehien kaltetzen ari ziren proiektuekin. Hamarreko rankingean, bosgarren kaltegarriena da Turin (Italia) eta Lyon (Frantzia) tren azkarrak lotu eta Alpeak lur

azpitik zeharkatzeko egiten ari diren 57 kilometroko tunela. Lanek 112 udalerriri eragiten diete, gehien-gehienak aurka daude eta azken 30 urteetan milaka herritarrek ezagun egin dute proiektuaren aurkako borroka.

Edozein kasutan, ingurumen eraginaz eta aurrekontuaz gain, bestelako eragileak ere badira bata edo bestea lehenesteko lehian. Aditu batzuen arabera, aferaren muinetakoa da EAEko korridoreko hiru adarrak batuko dituen Bergarako lotunea. Lotune hori saturatuta egongo da, eta Nafarroatik doan trafikoa motelduko du; Ezkioetik joanda, aldiz, zuzenean egingo litzateke lotura Europarekin. Horrez gainera, Gasteiztik egingo balitz, luzera begira Europako tren fluxuak errazago egingo ei luke aurrera Miranda de Ebrotik eta Logroñotik. Gasteizko aukeraren aldekoen ustez, dena den, horrek ez du zentzurik eta bide horrek konexio hobea eskainiko luke Santander, El Ferrol, Lisboa edo Portorekin.

Ordezkaritza parlamentarioa duten alderdien artean Ahal Duguk, Ezkerrak eta EH Bilduk proiektuaren aurkako jarrerak erakutsi dute. EH Bilduk abuztuan bertan eskatu du proiektuaren moratoria Foru Legebiltzarrean azter dadin. Bere ustez, inbertsio hauek ez dute ez zentzurik ez etorkizunik, eta dirutza horiek helburu sozialetara bideratu behariko lirateke, areago gaur egungo krisian. Azpimarratu du, halaber, tren eredu honek ez dituela merkantziak eramango, nahiz eta hori saltzen den, eta Burgos-Gasteiz linea jarri dute horren adierazgarri; han, salgaiak garraiatu zituzela iragarri zen, baina azkenean bidaiariak soilik eramango ditu.

ETXABAKOITZ

Hogei urte behar izan dira adostasunetara iristeko eta, azkenean, auzoa fisikoki bitan ez zatitzeko, trena kilometro bateko tunel faltsuan iritsiko da Etxabakoitzera. Joan den hamarkadan UPNk auzoan 9.000 etxe egitea aurreikusi zuen, eta horien salmentarekin finantzatu nahi zuen Nafarroako AHTko lanen zati bat. Horrez gain, auzoan egin beharreko edozein berrikuntza geltokiaren proiektuari lotuta egon da iragan otsailera arte, Etxabakoitzeko geltoki proiektuaren kudeaketa daraman partzuergoak, auzoaren garapena eta tren geltokia deslotu dituen arte. Edozein kasutan, oraingo proiektuan ere 10.000 etxe baino gehiago eraikitzea aurreikusten da egun 5.300 bat lagun bizi diren



Egungo trenbidea hobetzea da tren sozial eta publikoa ekimenaren aldarrikapen nagusia.

Orain arte Castejon
eta Erriberri arteko
25 kilometro
egin dira, dauden
samurrenetakoak,
eta obrak nagusiki
Erriberri eta Castejon
arteana ari dira egiten

auzoan. Erdia babes ofizialekoak izango dira eta beste erdia salmenta librekoak. 2012an Nafarroako Kontuen Ganberak ohartarazi zuen 9.000 etxe asko izan zitezkeela, batez ere ikusita 2007-2008ko krisitik gendozela eta etxebizitzaren burbuilaren eztaundak herritarrengan izan zuen eragina. Seguruena, gutako gehienon begietan egongo dira sasoi hartan izandako etxegabetze gogorren irudiak.

Izquierda-Ezkerraren eskariz, kontuen ganberak 2016an AHTren Nafarroako zatiaren txostena egin zuen, eta ondorioztatu zuen "beste egoera ekonomiko batean geundenean diseinatu zela" eta "orain zaharkitua gelditu dela", Asun Olaetxea Kontuen Ganberaren presidentearen ahotan laburbilduta. Txos-

tenak zioenez, "diseinua definitu gabe dago eta ez da alternatibarik aurkeztu". Garai hartan, euskal gizartea krisi latzetik ateratzen ari zirela aipatzen zuten agintariek, baina nekez irarri zezaketen handik gutxira, COVID-19ak, gerrak eta energiaren eskasiak beste krisitzar bat ekarriko zutela. Udazken beroaren iragarpenak eguneroko ogi bihurtu diren honetan, korridorearen obrek aurrera darraite, agintariak gastuaren aparretan bizi ziren garaietan diseinatutako plana jarraituta.

Geltokia Etxabakoitzera iritsiko da, baina korridorearen inguruko hirigintza proiektuak eragingo die ere Zizurreko Udalari eta Iruñeko Sanduzelai auzoari, horietatik egingo baita Zuastirainoko trenbide berria. 14.600 aparkaleku ere aurreikusi dira eta, besteak beste, erakustazoka berri bat. Obraspublicas.navarra.es webgunean ikus daitezke geltoki eta hirigintza proiektuaren xehetasunak osorik.

PROIEKTU GEHIENA AIREAN DA

Orain arte irakurritakoarekin irakurleak pentsa dezake bizi-bizi dela Nafarroako AHT proiektua, baina errealitatea oso urruti dago egoera horretatik. Gehiena oraindik egiteke dago, etengabe finantziario arazo larriak izan direlako eta aurrera begirako panorama ere oso nahasia delako. Nafarroako korridorea ez da Espainiako Gobernuaren lehenta-

ABIADURA HANDIKO KORRIDOREA NAFARROAN

Zaragoza eta *Euskal y-a* lotzen ditu eta lau zatitan banatuta dago



GASTEIZ / EZKIO ALTERNATIBAK

Datuak	Gasteiztik	Ezkiotik
Km	74,8	55,1
Kostua	704	2.061
Tunelak	5,5 km	30 km
Tunel luzeena	1,9 km	21 km
Zubiak (Arakil)	4	8
Biadaktuak	15	17
Biadaktuak (metrotan)	1.800 m	3.200 m

Denborak

Gasteizera	30'	36'
Donostiara	1 h 02'	44'
Bilbora	56'	40'

Iturria: *Diario de Noticias*

Aurreikusitako inbertsio ofiziala:

1.842,5 milioi euro*

* Iturri ez-ofizialen arabera, 4.000 milioi euro izan daitezke.

Iturria: Herri Lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia (Nafarroako Gobernua). 2020ko iraileko datuekin

sunen artean, eta iragarritako laino beltzen aurrean, ez dirudi izango denik ere.

2010ean Espainiako eta Nafarroako gobernuek proiektua aurrera ateratzeko ituna sinatu zutenean, José Blanco ministroak trena 2015erako Iruñean egongo zela zehaztu zuen. Yolanda Barcina presidentea ez zen atzean geratzekoa eta, krisiaren tamaina ikusita ere, berretsi zuen trena 2016an egongo zela Iruñean. Krisiak kosk egin ondoren eta panorama berria ikusita, Iñigo de la Serna PPko ministroak 2017an Iruñera egindako bisitaldian esan zuen trena 2023rako iritsiko zela Hiri Buruzagira. Eta 2023rako ezinezkoa bada ere, izan dadila 2026rako, Bernardo Ciriza kontseilari nafarrak 2021eko azaroan adierazi legez: "Arrizabalaga-Castejon 28 minututan egingo dugu ordurako". Ez da trenbideen eraikuntzaz asko jakin behar ikusteko ez dela inondik inora beteko kontseilariak esandakoa. Luze joko luke amaiera data jartzearen gaiak, baina ez da samurra horiek jartzeko agintarien zaletasuna ulertzea; logika elektoralarren eta politikakeriaren ikuspegi txarre-na erakusten dute.

Errealitatea arras gordinagoa da. 2023ko lehen hiruhilekorako aurreikusten da aterako dela publikora Zaragoza eta Castejon arteko tartearen proiektua. Orain arte Castejon eta Erriberri arteko 25 kilometro egin dira, dauden samurrenetakoak, eta obrak nagusiki Erriberri eta Castejon artean ari dira egiten. Erriberri eta Tafalla artean ere egin dira lanak, baina nahiko azalekoak. Esaten da tarte honetako lanik gogorrenak Tafallan hasten direla, Monte Plano eta Nafarroako Ubidearen azpiko tunelekin, hurrenez hurren 1.926 eta 586 metrokoak. Hirugarren zatian (Iruñerria) eta laugarrenean (Euskal y-arekin lotunea), azterketa fasean daude oraindik, eta gainera, azken honetan oraindik ez da erabaki trena Gasteiztik edo Ezkioetik joango den.

GARDENTASUN EZA

Inbertsioari dagokionez, pilulaka ari da Espainiako Gobernua, ezinean. Espainian 30 urte dela ekin zioten AHT sarea-ri, eta tarte horretan 3.086 kilometroko trenbide sarea eraiki dute, 56.000 milioi euro gastatuta eta munduko bigarren sare handiena eginda. Baina gero eta nekezago zaio estatu osorako aurreikusitako sare faraonikoarekin aurrera segitzea, eta are nekezago errentagarria izan dadin lortzea.

Lanak bertan behera
uzteko eskatuz,
Mugitukoek ekintza bat
AHTren obra guneei batean.
Aldizkari honetako
azaleko argazkia ere
ekintza horretakoa da.



EKINLIK



X. LETONA

Iruñean AHTren aurka iaz egindako manifestazioa.

Energia kontsumoa
asko murriztu beharko
den garai gogorren
aroan, gure gobernuek
jarraitzen dute energia
asko kontsumitzen
duen iragan aberatseko
garraio eredu
zaharkituari kateatuta

Ez da samurra AHTaren inbertsio eta aurrekontuen amaraunean mugitzea, oro har, gardentasun gutxiarekin jokatzeko da, edo besterik gabe, oraindik ez dago daturik. Lehentxeago aipatutako 2016ko Nafarroako Kontuen Ganberako txostenean, berariaz aipatzen da azterketak izandako oztopoen artean zegoela Adif-Alta Velocidad enpresa publikoari ordura arteko inbertsioen informazioa eskatu ziola ganberak, baina hark ez ziola erantzun ere egin. Horrek ere ematen du gardentasun ezaren neurria. Beste adibide bat: 2017an Barkosen gobernuak egin zuen proiektuaren eztabaida publikorako txosten bat –sarean da oraindik–, baina irakurleak ez du

inbertsioen erreferentzia txikiena ere aurkituko hartan.

Sosei dagokienez, esaten da EAEn Euskal y-a egiteko 6.000 milioi euro gasta ditzaketela –batzuen ustez 10.000 milioi ere bai– eta Nafarroan 3.000 eta 4.000 milioi artean. Azken proiektu honek duen xehetasun mailarekin, 2.500 milioi euroren bueltan egon liteke aurrekontu ofiziala, baina Nafarroako herri-lanen webgunean, bakarrik aipatzen da 1.842 milioi euroko kopurua. Sustrai Erakuntzaren arabera, 4.470 milioi euro lirateke (2013ko datuekin). Edozein modutan, nola jakin Euskal y-arekin lotunea egin gabe badago eta Ezkio-ko adarra Gasteizkoa baino 1.500 milioi euro garestiagoa bada?

Edozein kasutan, 2020an Airefek –Espainiako Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independentea– egindako txostenaren arabera, Euskal y-aren inbertsioaren %58 egiteko zegoen oraindik eta Nafarroako korridorearen kasuan inbertsioaren %96,2. Zenbat aurreratu da harrezkero Nafarroan? Agidanez, ez da sekulako urratsik eman. Aurten, halaber, apirilean Iruñean egon zen Raquel Sánchez Garraio ministroa eta hark emandako inbertsio datuekin, gai hauek Diario de Noticias-en jarraitzen dituen A. Irisarrik argitaratu zue-nez, Espainiako Gobernuak ez da iritsi korridorean egin beharreko inbertsio osoaren %5era. Ez dago oso urruti Airefeko datuetatik. Egoera zerbait bideratzeko, Europako Next Generation funtsetatik 140 milioi euro horra bideratuko dira, eta jarritako baldintzen arabera, 2026a baino lehenago gastatu behar dira.

Baina bultzada baino, azken urte luzeetan EBtik galga jartzen ari zaie AHTko inbertsioei. 2018an Europako Kontu Auzitegiak kritika gogorra egin zion EBk azken hamarkadetan eraiki duen abiadura handiko sareari: ez du EB egituratzen, garestia da, ez da aurreikusitako abiadura errespetatzen eta ez du uste helburua beteko denik. Europar auzitegiko Oskar Herics-ek egin zuen txostenaren aurkezpena. EBn eraikitako hamalau linea aztertu ziren, horietatik lau estatuen artekoak.

Gune ofizialagoetatik ere badator kritikarik, esate baterako, PSOEren barrutik edo Espainiako eskumako sektore batzuetatik, bereziki “Espainia hutsaren” gaiak sona hartu duenetik. 2020ko urtarrilean Pedro Sánchez-zen Gobernuako Garraio ministro zen

José Luis Abalosek zera adierazi zuen 2020ko urtarrilean: “Urte gehiegiz abiadura handian oinarritu den gure trenbide inbertsioen norabidea erabat aldatuko dugu”. Gerora, Sánchezek kargugabetu zuenean, aipatu zen jarrera horrek izan zezakeela eraginik Moncloaren erabakian.

EUROPA HELMUGA

AHTren aldekoentzat Europarekin lotzea azpiegitura hau bultzatzeko arrazoi nagusietakoa izan da. Zer gertatu da orain arte? Frantziako Gobernuak behin-behinean bertan behera utzia zuen Bordele eta Baiona arteko AHT proiektua, eta ez zen aurreikusten proiektuari berriz heltzea 2030eko hamarkada arte. Parisek, aldiz, iritzia aldatu du eta Bordele-Akize-Baiona-Paue linea hasi nahi du 2024an, 2037an bukatuta egon dadin.

Korapilo nagusia finantziazioan dago. Bere kabuz finkatuta, Parisek %40 hartuko luke bere gain, beste %40 tokiko erakundeek eta %20 EBk. 305 milioi euroko inbertsioa da eta horietatik 130 Euskal Elkargoaren kutxetatik ordaindu beharko lirateke. Joan den abenduan, ordea, Euskal Elkargoak gehiengo handiz eman zion ezetza azpiegituraren finantziarioari. Ez da bakarra, Lot eta Garona, eta Gironde departamenduek ere ezezkoa eman diote. Pirinio Atlantikoetako lehendakari Jean-Jacques Lasserrek jakinarazi duenez, Paueko erakundea ados dago proiektuarekin, baina ez Parisek inbertsioa bere aldetik finkatu izanarekin, eta hortaz hitz egin nahiko luke Macronen gobernuarekin. Nafarroako Korridorea egoera estuan badago, beraz, gaur gaurkoz ez dago hobe Nafarroako AHT zaleek laudorio duten Europako lotura.

1987an korridorearen lehen txosten ofizialak egiten hasi zirenetik izan du oposizio handia AHT proiektu honek Nafarroan, baina 2017ra arte ez zuen alternatiba zehatzik izan. Urte hartan Sustrai Erakuntzak Tren Publiko eta Soziala proiektua aurkeztu zuen, egungo abiadura handituz, garraioa eramateko modukoa, funtsean egungo trenbide azpiegitura baliatuta, eta lurraldea egituratzeko helburuarekin. Ez zen haiek nahiko luketena, baina balioko zuen alternatiba gisa, beste eredu jasagarriago bat bideratu ahal izan arte. 2.000 milioi euroko inbertsioa suposatuko luke, egungoaren erdia. Oraingoz ez zaio

inongo jaramonik egin erakundeetatik eta abiadura handiaren esparrutik, eta ura eta olio bezain nahastezinak dira.

Energia kontsumoa asko murriztu beharko den garai gogorren aroan, gure gobernuak jarraitzen dute energia asko kontsumitzen duen iragan aberatseko garraio eredu zaharkituari kateatuta. Abiadurari jasagarritasunari baino garrantzia handiagoa emanda, Nafarroako lurralde kohesioa kaltetuta, eta gainera, korridorea finantzatu ezinean. ●

DATU PERTSONALEN BABESA EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



📞 943 453 588 · www.sigacus.com

mitxelena

NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Berdegune hektarea bat, eskolek elkarlanean erabiltzeko

Eskolan basoei buruzko lanketa egin ostean, eskaera egin zioten Azkoitiko ikasleek udalari: natur eremu gehiago nahi zuten, bai herriarentzat, bai ikasgune bezala erabiltzeko. Erronkari heldu eta hektarea bat lur eskaini zien udalak, herriko ikastetxeek eurek kudeatu eta erabiltzeko. Udalaren baldintza: "Guk gune bat jarriko dugu zuen eskura, baina zuek erabilera didaktikoa eman behar diozue". Eta ordutik bide emankorra egiten ari dira Azkoitiko ikastetxeak; ikasgelako lau paretetatik ateratzeari beldurra galdu eta auzolanean probetxu atera diote eremu berdeari.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  IKASTETXEEK UTZIAK

Agenda 2030 programaren barruan, garapen jasangarriarekin zerikusia duen gai bati hel-tzen diote ikasturtero ikasleek. Duela bi ikasturte basoen inguruko lanketa egin zuten, eta arlo horren diagnostikoa eta hobetzeko proposamenak egin zituzten ikasleek: batetik ikastetxeko testuinguruan hobetzeko proposamenak, bestetik herri guztia aintzat hartuz udalari planteatutako proposamenak. Besteak beste, zuhaitzik ez mozteko, bertako zuhaitzak landatzeko, urbanizazio berrietan naturguneak kontuan hartzeko... eskatu zioten gazteek udalari, eta adierazi zioten eremu berde gehiago nahi zutela herrian, bizilagun

guztiek erabiltzeko oro har eta ikasleek eurek ikasgune gisa baliatzeko zehazki. Bada, nahiz eta instituzioek ez gauzkatzen oso ohituta halako eskaerei erantzutera, Munoaindi inguruan hektarea bat eskaini zien Azkoitiko Udalak eskolei, eta garbitu eta prestatu egin zuen, ikastetxeek erabili ahal izateko.

Hor hasi zuten abentura Azkoitiko lau ikastetxek. Mahaiaren bueltan kontatu digute euren esperientzia ikastetxe horietako irakasleek: Azkoitia BHI institutuko Eider Irastorza, Floreaga itunpeko ikastetxeko Ana Ruiz de Azua, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza hartzen dituen Bizilore eskola aktiboko Zaine Rekondo eta Izarraitz Lanbide Heziketa

zentroko Iratxe Etxeberria. Bidelagun izan duten Ingurugelako Olatz Zabaleta ere batu da solasaldira –Eusko Jaurlaritzak ingurumen hezkuntzari lotuta duen aholkularitza zerbitzua da Ingurugela-. Ikasturte honetan, Xabier Munibe ikastetxe publikoak ere bat egingo du egitasmoarekin, eta orduan bai, herriko eskola guztiak barne hartuko ditu ekimenak, Azkoitiko hezkuntza zentro guztien elkarlana oinarri.

Proiektu honen aurretik ere, 11.000 biztanle baino gehiago dituen Azkoitia ez al den berdegune ugariako herria galdetu du lehenik kazetariak. "Berdea da, bai, baina eremu publiko berde gutxi dugu, ia lur guztia pribatua baita eta eukalipto asko ari da sartzen; Gipuzkoa osoan errepikatzen den errealitatea da", azaldu digute irakasleek.

Urmaela, arbolak, bidexka...

Lehenengo, udalak utzitako eremua diseinatu dute ikasleek: bidexka bat zehaztu dute, esertzeko jarlekuak, zein zuhaitz nahi duten landatzea gune horretan... Bertako arbolak aukeratu dituzte (urkia, pagoa, gorostia, artea, lizarra, astigarra...), baina hezitzaileek kontatu digute hasierako landaketa egin dela zuzenean aprobetxatuz udalak mintegian zituen zuhaitzak. Ezkurrekin harritza ernatzeko prozesua ere egin dute ikasleek basozainen laguntzaz, eta hortik ernatzen diren zuhaixkak aurrerago landatzea da asmoa.

Ikasturte honetako proiektu izarra urmaela izan da. Aranzadi Zientzia Elkarteko laguntzaz egin dute pu-



tzua Munoaindin eta lau ikastetxeko gazteak aritu dira auzolanean; Lehen Hezkuntzatik Batxiler eta Lanbide Heziketarainoko ikasleak inplikatu dira. Eskulanez asko izan du proiektuak: zuloa egin, palekin lurra bota, aitzur-rekin garbitu, geotextil geruza ezarri (euri-ura ez dadin iragazi eta lurrak ez dezan dena xurgatu), beste pare bat geruza jarri, lurra bota, putzua hesiekin inguratu... Ingurumena eta bioaniztasuna lantzeko habitat baten erreproduzioa aukera paregabea dela jakitun, gero eta gehiago dira Euskal Herrian halako hezeguneak sortzera animatzen ari diren eskolak; orain Azkoitikoek ere badute beraien putzua, benetako laborategi naturala, eta horri esker, Urmaelen Sarearekin bat egingo du Azkoitiak.

“Helburua da naturgunea ikasleku izatea –azaldu digu Olatz Zabaletak–;

*“Begiratzen laguntzen
dute halako
proiektuek: anfibioak
aurkitzeko leku bero
eta hezeetan bilatzen
hasten zara, harri
azpietan bizitza topa
dezakezula badakizu...”*

Eider Irastorza

urmaelarekin adibidez bertatik bertara ikasten dute, ez baita ‘putzu bat egin eta kito’, putzu horrek ematen dizuna lantzea baizik: hitz egitea gerturatzen diren baso-igeez eta anfibioez, oro har espezieez, inguruan hazten hasi diren landareez, berezitasun klimatikoez, urtaroez... Naturak bere lana egiten du eta urmaela aberasten joaten da, bizitza hartzen”. Horregatik, datozen ikasturtearako ere bada zeregina, bizirik dagoen ikasgunea baita, ikasleen proposamen eta beharren arabera moldatzen joan nahi duena. Gainera, pasa den ikasturtean ez bezala, ikasturte honetan curriculumean txertatuta eta aurreikusita dituzte naturgunerako txangoak, “planiifikatuta ez dagoena egitea zaila baita ikastetxeetan, eta behin curriculumean leku eginda, maiztasun eta erraztasun handiagoz” joan daitezke Munoaindira ikasleekin.



BEGIRADA LANDU DAITEKE

Natura ikasleku bihurtzea ez da zelaira edo basora joan eta ea zer topatzen dugun ikustea; "begiratzen jakin behar da eta begiratzen laguntzen dute halako proiektuek: anfibioak aurkitzeko leku bero eta hezeetan bilatzen hasten zara, harri azpian bizitza topa dezakezula badakizu... berdin hots eta soinuekin, entzuten ere ikasi behar delako, eta pistak zein diren ikasten duzunean, beste betaurreko batzuk jantzi eta begiratzen dakizunean, beste era batera gozatzen duzu eta ikasten jarraitzeko gogoia pizten da", dio Eider Irastorzak.

Gustura aritu dira ikasleak aitzurra hartu eta ekinean, beste eskoletako haurrekin batera, eta ordutik euren sentitzen dute urmaela. Hasieran, esaterako, urduri zeuden, eskola-orduetatik kanpo putzua begiratzera joan eta ez zelako urez betetzen, ez baitzuen euririk egiten, edo egun batean putzura hurbildu eta argazkia bidali zuen ikasle batek, lokaztuta zegoelako kezkatuta. Egoera horiek aukera ona dira hainbat gai jorratzeko, dela klimaz eta eguraldiaz hitz egiteko, dela pinuak moztu dituztenez eta hezegunea maldan dagoenez lokaztea normala dela azaltzeko. Gainera, gelako dinamikan hain eroso ez dauden ikasle batzuek beren burua nabarmenduta ikusi dute bat-batean, ezagutza handiagoa dutelako natur kontuetan edota kanpoko ekintzetan hobeto moldatzen direlako, "eta lau pareten artean sufritzen dutenen autoestimurako ere ona izan da".

Eremuaren diseinua ikasleek eurek

*"Orain berriz hasi
gara baratze, landare,
animalia, natura
eta abarrei lotutako
jakintzak baloratzen,
eta bada zer egina"*

Olatz Zabaleta

sortzea, plangintzan aldaketak eta proposamenak egitea... Finean, prozesuan protagonistak haurrak eurak izatearen balioa nabarmendu dute hezitzaileek, normalean dena eginda emateko joera baitugu. "Horretarako, jakina, aurretik ezagutza inportantea da eta edukietan indarra jarri dugu, ikasleek egiten dituzten proposamenak eta dituzten irizpideak sendoak izan daitezen; landatu nahi dituzten zuhaitzak bertako zuhaitzak izatea ez da ezerezetik sortzen den proposamena. Ezagutzak eta inplikazioak, halaber, sentsibiltatea eta kontzientzia dakartza, gertutik bizi duzun hori zaindu eta errespetatu nahia", diote irakasleek.

Eta lanketa guztien oinarrian dagoena azpimarratu digu Olatz Zabaletak: ikuspegi ekosoziala. "Ikasleak ahalduntzen ditugu arazoei aurre egiteko, eta ingurumen arazoak eta arazo sozialak lotuta daude, dena dago lotuta, baita soluzioak eta erantzunak ere. Datorren ikasturte honetan energia da jorratuko dugun gai zentrala, eta pobrezia energetikoa, adibidez, ezinbestean arituko gara".


NATURGUNE, IKASGUNE... ETA ELKARGUNE

Haur Hezkuntzako umeak eta Lanbide Heziketako nerabeak urmaela elkarrekin egiten ikustea dibertigarria izan dela diote irakasleek: haurrak goitik behera prestatuta, gazteak kaleko arropa garbiak soinean, bi mundu hain ezberdin pixkanaka elkar ulertzen eta laguntzen nola joan diren ikustea. Izan ere, Azkoitiko eskolen elkargune ederra da proiektu hau, beste ekimen eta elkarlan batzuetarako abiapuntu, elkarren esperientzietatik ikasiz eta elikatuz. Bakoitzak bere ekarpena egin du eta Lanbide Heziketakoek esaterako egurrari lotutako eskulanetan zeresan handia izan dute.

Basozainekin, Aranzadirekin, natur elkarrekin eta herriko beste hainbat eragilarekin ere aritu dira auzolanean ikastetxeak, proiektuaren motorra eta etorkizuna hori dela sinetsita: herrian pixkanaka mugimendua ikusten dela diote, batzuen eta besteen artean sinergiak bilatzen eta harreman sarea osatzen.



ELKARLANEAN. Haur Hezkuntzako umeak eta Lanbide Heziketako nerabeak urmaela elkarrekin egiten ikustea dibertigarria izan dela diote irakasleek.



NATUR TRANSMISIOAREN ETENA

Harreman sarearen parte da baserri giroko jendearen ezagutza partekatzeara. Dena den, Azkoitia bezalako herri batean haur eta gazteek naturaz zerbait jakin jakingo dutela adierazi du hiritik datorren kazetari honek. Bestelako irudia eman dute hezitzaileek: baserritik bizi den jendea herrian oso gutxi dela, horri lotuta naturaren ezagutza asko jaitsi dela. “Sendabelarre lotutako proiektua egin berri dugu eskoletan eta baserritar baten inguruan dituen landareekin eman dizkigun argibideak lehen aldiz ezagutu ditugu ez bakarrik ikasleek, baita guk geuk ere, transmisioaren etena ez baita belaunaldi berriena, aurreko belaunaldian jada eman zen etena –dio Zabaletak–. Baserri mundutik kalera jaistea bera izan da galerarako arrazoi, baina baita jakintza mota horri urtetan garrantzirik ez eman izana ere. Orain berriz hasi gara baratze, landare, animalia, natura eta abarrei lotutako jakintzak baloratzen, eta bada zer eginga. Pentsa, herri txikitik aritzen den irakasle ugarirekin egoten naiz eta esaten didatena da herri txiki eta berdea izanik pentsatzen zutela ikasleek naturaz gehiago jakingo zutela, baina oro har ez dela hala. Gurasoek zein sentsibiltate eta zaletasun duten naturarekiko, hori ere antzematen da ikasleengan”.

“Dugun hezkuntza antolamenduak eta baldintzek ez dute kanpora bultzatzen, ez da erraza, baina txipa aldatzen ari zaigula esango nuke”

Ana Ruiz de Azua

LAU PARETETATIK IHES EGIN NAHI DU HEZKUNTZAK

Pandemiak agerian utzi zigun kanpoaldearen garrantzia, eta hezkuntza mundua ere horren kontzientzia hartzen ari da azken urteotan, ikastetxeko patioa eraldatzeko dagoen ekimen andana lekuko. Baina patioan berdegunea jartzea eta berdegune hori nola eta zertarako erabili lantzea gauza ezberdinak direnez, gero eta gehiago dira kanpo espazioen erabilera didaktikoan formatzen ari diren irakasleak. Ingurugelak antolatzen dituen prestakuntzetan nabaria da joera, asko dira ikastaroetan izena

ematen duten irakasleak, urmaelak, baratzegintza, zelaia, ekofeminismoa... jorratzeko asmoz.

Munoaundiko naturgunera joateko txangoa bera ere aberasgarria eta motibagarria dela diote solaskideek. Ikastetxe batzuetatik beste batzuetatik baino denbora gehiago behar da bertaratze, eta ikasleen adinaren arabera ere jardun osoko plana izan daiteke, bidean geratzen joanez gero, gauzak ikusten, galderak egiten... Pazientziak hartuz gero, bideak berak joko handia ematen baitu landareez, zuhaitzez eta animaliez hitz egiteko.

“Proiektu honek lagundu du kanpora irtete horri beldurra galtzen –aitortu digu Eider Irastorzak– irakasle asko eroso daudelako beren gelatxoan klasea ematen, eta horrelako ekimenak bultzatzea dira dinamika aldatzeko”. Azken finean, kanpora atera ahal izateko gutxienez bi irakasle behar izaten dira talde bakoitzeko, ordutegiak koordinatu behar dira, eguraldiak lagundu behar du, aurretiazko lanketa egin behar da... “Dugun hezkuntza antolamenduak eta baldintzek ez dute kanpora bultzatzen, ez da erraza, baina txipa aldatzen ari zaigula esango nuke –dio Ana Ruiz de Azuak–. Lau paretetatik irteten hastea da joera aldatzeko lehen urratsa, eta ikastetxe guztietan egon ohi da motibaturen bat, horretarako atea ireki eta gainerako irakasleak xaxatzen dituen”.

EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKOAK

Aurrerapauso txikiak

Euskal telebista bat sortzera joan zirenean, hainbat beharrekin topatu ziren: aurkezleak, kazetariak, erredaktoreak, kamerariak, eta beste hainbat postu beteko zituzten langileak. Baina beste behar bat ere sortu zen: euskaraz kontsumitzeko filmak edo telesaioak. Hutsetik horiek egitea garestia zen, bazegoen beste modurik, ordea, hori lortzeko: bikoizketa. Eta hala sortu zen, beste batzuen artean, Tinko Euskara Elkarteak.

 MADDI VIANA ZUBIMENDI  DANI BLANCO

Tinko Euskara Elkarteak urte askotan filmak euskaraz bikoizten eta eskaintzen aritu da. Maria Galarraga izan zuen buru urte askoan zehar, euskarazko lehen bikoizlea dena. Elkarteak 20 urte bete zituen zinea.eus-ek elkarrizketa egin zion hari eta alaba Izaskun Arandiari. Bertan azaldu zutenenez, Tinkok 100 film euskaratu zituen jada, 5.000 emanaldi zituen emanak eta 750.000 ikusle izan zituen.

URTEURRENEZ URTEURREN

25. urteurrenean *Berria* hedabideari elkarrizketa bat eskaini zion Galarragak. Bertan azken 25 urteek “konplitu izanaren poza” utzi ziotela adierazi zuen. Hala eta guztiz ere, elkarteak zituen helburu guztiak betetzea ezinezkoa zen oraindik,

*“Oso berezia da
umeentzat eskaintzen
dugun esperientzia,
askorentzat zinera
joaten diren lehen
aldia da”*

Iñigo Arandia
Tinko elkarteak

arrazoi nagusi batengatik: “Momentu batean sektorea ere nahiko gaizki zegoen, eta hor diru iturri bat ikusi zuten batzuek, eta euskara batera inporta ez zitzaien jendea sartu zen deialdietan; horrek izorratu zuen dena”, ziurtatu zuen Galarragak.

Iñigo Arandia Galarragaren semea da eta Tinko Euskara Elkarteak dabil baita ere. Datorren 2023an 30 urte beteko ditu elkarteak eta aurretik aipatutako kopuruak asko handitu ditu, Arandiaren hitzetan: 120 pelikula inguru zabaldu dituzte eta 2.000.000 ikusletik gora izan dute. Filmak ikastetxeen esku jartzeaz gain, aretoetan ere saioak ematen dituzte. Arandiak aipatu du oso berezia dela umeentzat eskaintzen duten esperientzia, askorentzat zinera joaten diren lehen aldian haiekin delako.



Haien bildumako filmak europarrak izan ohi dira, eta material didaktikoa-rekin zabaltzen dituzte. Izan ere, hezkuntzara bideratzen dituzte filmak. Pelikulak aisialdirako eta erakargarriak izan daitezen saiatzen dira, baina beti balio konkretu batzuk jorratzen dituztenak: ikuspegi feminista, inklusiboa eta berdintasunezkoa izan behar du filmak. Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat prestatzen dituzte filmak eta irakasleei eskaintzen zaizkien material didaktikoak.

Lehen, Tinko enpresak berak lauzpabost film euskaratzen zituen urtean, Eusko Jaurlaritzak ematen zion laguntza ekonomikoari esker. 2009-2010 artean, ordea, Zineuskadiren esku utzi

zituzten dirulaguntzak eta laguntza ekonomiko hori galdu zuten. Ordutik, Zineuskadik erabakitzen du zein pelikula euskaratuko den. Tinkok euskaratutako proiektzio bat gustuko badu, bikoizketa esleitu zaion banatzailearekin jartzen da kontaktuan, zabaltzeko lizentzia lortzeko. Horrez gain, Tinkok film bat edo bi euskaratzen ditu urtean (*Tess* eta *Nire Zirkua*, esaterako). Bestela, bertako banatzaileengandik ere lortzen dituzte pelikulak.

Umeentzako aproposak diren ikusentzunezkoak zeintzuk diren eta balio pedagogikoa duten proiektzioak lantzen dituzte. Filma aukeratzen duten garaian, banatzaile edo ekoizlearekin jartzen da elkarte harremanetan. Proiektzioa banatzeko lortzen den li-

zentiaren arabera, filmak urte batez baina gehiagoz banatzen dituzte, lizentzia amaitu arte.

Ikasturtean zehar, ikastetxeetan filmak ikusi ondoren irakasleei galdetegia luzatzen die Tinkok: antolakuntza, material didaktikoa... nolakoak izan diren jakiteko. Horrela haien zerbitzua pixkanaka hobetzen joateko, “eboluzionatzen”, Arandiaren hitzetan. Aurreko kurtsuan 300 erantzun jaso zituzten.

PANDEMIAN ETA PANDEMIARIK GABE, FILMAK EUSKARAZ

2020ko ikasturte erdialdera hasi zen COVID-19 izurritea gurera iristen. Tinko Euskara Elkarteak 25.000 ikusle inguru galdu zituela kalkulatu du Iñigo Arandiak. “Pandemiak bete-betean jo

gintuen”, aitortu du. Izurriteak askori eragin die eta baita ikastetxeei ere, haien bezero direnak. 2021ean, filmen online eskaintzak salbatu zuen ikasturtea. Orduan, honakoa azaldu zion Maria Galarragak *Berriari*: “Tinko Euskara Elkartea sortu zenetik, hainbat eta hainbat oztopo gainditu behar izan ditugu. Aurten, halabeharrez, Euskara Zine Aretoetara proiektua eten eta denbora berrietara egokitzea suertatu zaigu, baina helburua berbera da oraindik ere: Euskal Herriko haurrek filmak euskaraz ikustea. Zinema aretoan edo etxean”.

Datorren kurtsoan ere aurrera egiteko asmoa dute, eta honako sei pelikula hauek aurkeztuko dituzte: HHko ikasleentzat *Grufaloo* eta *Harri Zopa*, LHko 1-2-3 mailakoentzat *Abentura Historiurrean* eta *Zutik!* eta LHko 4-5-6 mailakoentzat *Nire Zirkua* eta *Elkano, lehen mundu bira*.

*Azken urteotako
produkzio faltagatik,
orain badirudi
eztanda bat dagoela,
bi produkzio baino
gehiagoko eskaintza
baitago*

BATZEN ETA ELKARTZEN

Bieuse Bikoizle Euskaldunen Elkartea da eta bikoizketa lanetan ibiltzeaz gain, bikoizleen lan-baldintza duinak aldarrikatzen ditu. Kooperatiba horretako kide dira Euskal Herriko 52 bikoizle, aktore, etab. Dauzkaten baliabideekin bikoizten dituzte ikus-entzunezkoak eta Tinko eta beste enpresa batzuentzat bikoizteaz gain, laster atzerriko enpresentzat lan egiten hastea espero dute. Bieuse baita euskaraz lan egiten duen bikoiztaile talderik handiena. Talde handi hori osatzen dutenen artean dago Xabier Alkiza.

Euskarazko bikoizketako lan-baldintzen historia txikia osatu zuen Alkizak ARGIAri 2020ean eskaintako elkarrizketan. Honela jaso zuen Gorka Bereziartuak: “1980ko hamarkadan, ETB hasi zenean, indarrean zegoen Espainiako Estatuko hitzarmen bat bikoizleen lana erregulatzen zuena; eta hori bertan behera geratu zen eskumenak autonoko-





mia erkidegoetara pasatzean". Alkizaren hitzak gehitu zituen ondoren: "Hor hasi zen ETBn dena maldan behera. Ez ETBn bakarrik, ia estatu guztian izan zen ostikada. Lan asko zegoen zentroetan, Madrilen eta Bartzelonan, mantendu egin zen hitzarmen hartan markatzen zena. Baina gainontzean, barra librea ezarri zen. Hemen bezala Mediterraneo aldean ere, telebista autonomikoak zeuden tokietan, erakunde publikoetatik bultzatuta zuten prekarizazioa eta intrusismoa". 1990ean egindako hainbat bileraren ondoren, 2000. urteaz geroztik bikoizketa pixkanaka gutxitzen joatea erabaki zuten.

*"Pandemiak
bete-betean jo
gintuen, 25.000 ikusle
galdu genituen"*

Iñigo Arandia
Tinko elkarte

Oraingoan ere euskaraz kontsumitu daitezkeen produkzio falta azpimarratu du Alkizak ARGIAri eskainitako elkarrizketan, azken aldian eztanda ematen ari dela uste dutelako askok, ez berak, ordea. Alkizaren ustez kontuan hartu beharra dago azken urteotan ez dela ia kontsumitzezorik egon euskaraz. Beraz, orain, bi produkzio baino gehiago kaleratu den une honetan, izugarritzko eztanda bat ematen ari dela dirudi.

Euskal bikoiztaileek egoera kaxkarean urteak daramatzate lanean, baina, hala ere, hainbat proiektio aurrera eramateko gai izan dira.

PIXKANAKA AURRERA

Durangoan Netflix Euskaraz eta Disney+ Euskaraz-ekoekin ibili zen Iñigo Arandia mahai inguruan, eta haiek luzatu zioten gonbita Pantailak Euskaraz-en parte izateko. Orain, Bieuse eta Tinko Euskara elkarteek osatzen dute Pantailak Euskaraz herri ekimena. Proiektuaren parte dira Netflix Euskaraz eta Disney+ Euskaraz, besteak beste.

Ekimenak euskararen presentzia aldarrikatzen du. Ez du proiektio zehatzaren euskaratzea eskatzen, *streaming* plataformetan euskara egotea baizik. Ez dira prozesu zehatzak, ikus-entzunezko jakin bati lotuak doazenak. Hala adierazi du ekimenaren parte den Alex Aginagalde: "Gure aldarrikapena eta borroka orokorra da, erakundeekin eta plataformak presionatuz sareetan eta gutun formalen bidez aldarrikapen eta eskaera orokorrak egiten ditugu, euskaldunen eusku-bideak errespetatu ditzaten eskatuz".


Asko izan dira euskarazko ikus-entzunezkoek izan dituzten gorabeherak, batez ere euskarara bikoiztuak izan diren horiek, eta arazoak handitu egiten dira bi estaturen artean banatua dagoen herri batentzat. Espainiar estatuan euskarazko edukia izateko aurrerapenak egin dira *streaming* plataformetan. Frantzian, ordea, hasiberriak dira uda honetan euskaraz edukia ikusteko aukera eskuragarri jartzen. Hala eta guztiz ere, Pantailak Euskaraz ekimenak ez du amore emango eta irailean Ipar Euskal Herriko erakundeekin bilerak egingo ditu.

Euskarazko ikus-entzunezkoen sektoreak, pixkanaka, gorantzko joera duela dirudi. Gutxinaka, euskaraz kontsumitu daitezkeen ikus-entzunezko gehiago dago. Aurrerapauso txikia da, baina aurrerapausoa, azken finean. ●



BABESLEA:





Lehorteakislama urezatu zuen



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Arabiarr penintsula, VI. mendearen lehen erdialdea. Axum erresumako etiopiarrek penintsularen hegoaldea kontrolatzen zuen Himyar erresuma oparoa konkistatu eta desagerrarazi zuten. Ordura arte Himyarrek Indiar Ozeanoaren eta Itsaso Gorriaren arteko merkataritza bideak kontrolatzen zituen, baina erresumaren aberastasunak bereziki nekazaritzan zuen oinarria, zehazki, ureztatze sistema zabal eta sofistikatuan. Himyar erresumaren gainbeherak utzitako botere hutsunea ederki baliatuko zuen islamak hurrengo mendean.

Garai hartako kronikek VI. mende hasierako lehorteari egotzi zioten erresumaren bat-bateko krisia eta, berriki, Basi-leako unibertsitateko ikerlari talde batek egiaztatu du hipotesi hori. Himyarreko arrasto arkeologiko urriek erantzunik eman ezean, arrasto geologikoak aztertu dituzte, zehazki, Omango Al Hoota kobazuloko estalagmitak. Estalagmiten lodiera gainera erortzen zaien ur kantitatearen arabera denez eta denboraz estalagmiten uranio atomoak pixkanaka degradatzen direnez, ikerlari suitzarrek garai hartako prezipitazioen kronologia zehatza osatu ahal izan dute, *Science* aldizkarian azaldu berri dutenez.

520. urte inguruan hasita, lehorte bortitz eta luzeak jo zuen Himyar. Estatuaren



Mahoma Mekan, Korana predikatzen. Al-Biruni dokumentuaren XVII. mendeko kopia otomandarra.

oinarri zen nekazaritza kolapsatu zen eta goseak hartu zuen lurralde osoa. Erresuma boteretsuaren krisiak Arabia osoa desegonkortu zuen. Eta tribu nahiz erresuma txikiak elkarren artean borrokan hasi ziren; lehorteari gerra erantsi zitzaion. VII. mendearen hasieran, arabiarren

egoera larria zen, eta orduan alternatiba itxaropentsua eskaini zien Mahomak. Islam sortu berriak fedea eta unitatea ekarri zien, baita penintsulatik kanpo lur emankorrak konkistatzeko aukera ere. Lehorteak eremua ezin hobeto prestatu zuen islamaren hazia ereiteko. ●



Museoaren definizio berria

ICOM Museoen Nazioarteko Kontseiluak museoaren definizio berria onartu du 26. Biltzar Nagusian, 18 hilabeteko eztabaida prozesuaren ondoren. "Museo bat irabazi asmorik gabeko erakunde iraunkorra da, gizartearen zerbitzura dagoena, eta ondare materiala eta immateriala iker-tzen, biltzen, kontserbatzen, interpreta-tzen eta erakusten du. Irekiak, irisgarriak eta inklusiboak, museoek aniztasuna eta iraunkortasuna sustatzen dituzte. Modu

etikoan, profesionalean eta komunita-teen parte-hartzearekin funtzionatzen eta komunikatzen dira, hezkuntzarako, gozamenerako, hausnarketarako eta eza-gutzak trukatzeko askotariko esperien-tziak eskainiz". Lehenengoz jasotzen ditu irisgarritasuna edota iraunkorta-suna, baina eztabaidatutako beste kon-tzeptu batzuk kanpoan utzi dituzte, hala nola deskolonizazioa edo ondarea jato-rrira itzultzea. ●

Bidean

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA



ARGIArekin liburu bat argitaratzeak bere zama txikia dakar. Ez baita publikatze horretan gertatzen. Hori lehen botea da, baina bigarrena ere iristen da uste baino azkarrago, beti du bigarren buelta bat denak, eta liburua balioan jarri eta aurkezpenak egiten hasi beharra dago. Zama txikiarena ez dut zentzu txarrean ulertzerik nahi, irakurle. Bigarren buelta bat ekartzen dute gauzek ARGIArekin, konbentzimendutik ematen dutelako pauso bakoitza, argitaratutakoa ez delako edozein liburu, gaian sinesten dutelako eta uste dutelako bertan lantzen diren baloreek ahalik eta zabalpenik handiena behar dutela izan.

2021eko azaroan aurkeztu zuen hezkuntzaren inguruko *Bidean. Aurrea egin nahi duen irakaslearen deiala* goa liburua Koldo Rabadanek. Ez zuen aurkezpenik egiteko asmorik, soilik Larraulgo kultur astean, bertako ikastetxeak irakasle baita. Hori eta Durangoko Azokakoa. Baina beste proposamen batzuk iristen hasi zaizkio eta, oraingoz, urtariletik maiatzera bitarte zortzi bat aurkezpen egin ditu.

Ikastetxeak dira, batez ere, Koldoren hitzaldia eskatzen dutenak; nahiz eta guraso elkarteren batekin ere aritu den hizketan eta aurreratu zaigu: "Hizketaldi aberatsak izan ditut guraso jendearekin ere, eskolan bultzatzen dugun haurraren kiko begirada hori ere etxeko egoerara eraman baitaiteke". "Nire proposamena izaten da handira paso egiteko eta txiki-jotzeko", dio Rabadanek, musulari sena ateraz. "Aldaketa norberetik hasten da, barrutik, eta hobe da pauso txiki eta sendoak ematen joatea. Aldaketa handia ondoren etorri ohi da, konbentzimendutik", segitu du.

Maisu-maistren barruak mugitzen ahalgintzen dela aitortu digu eta irakasle moduan zaindu eta landu beharko litzuzketen printzipioen inguruan aritzen da.

Gustura dago hilabete hauetan jasotakoarekin, "eskertuta ARGIArekin hasi eta solasaldia gustuko izan ez duen entzuleraino, denek eman baitidate baliozko zerbait", eta uda deskantsatzeko aprobetxatu badu ere, ikasturte honetarako baditu hitzaldi eta mintegi batzuk prestatuta, nahiz eta denak *Bidean* liburuarekin lotura zuzena ez izan.

Hau irakurtzen ari den inork interesik izango balu bere herrian, ikastetxean, elkarteetan antzeko solasaldien bat antolatzeko, solasaldiak@argia.eus helbidera idaztea bezain sinplea da eta berehala jarriko dira berarekin harremanetan. ●



DANI BLANCO

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei komunitatera!



"Euskarazko kazetaritza independentea defendatzea derrigorrezkoa delako, Euskal Herri aske bat lortu nahi badugu"

Oñatiko Gorka

"Aspaldian nuen asmoa, baina Estatuetakoa estoldetaz egin zenuten artikulua azken bultzada eman dit"

Eibarko Jon

"Informazio ausarta eta landua jaso nahi dudalako"

Donostiako Mila

GERRA SASOIAN TXIKORIA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Izema Miren pattal samar ibilia dugu. Astebete ospitalean iraun ondoren bizitzara bueltatu da, bere etxera. Ospitalean zenean ahoa freskatzeko sagardo tragoxka bat eskatzen zuen, hori zuen gutizia bakarra. Etxeratu denean zer nahi duen eta zein izango bere apeta eta kafea. Kafea egin egin behar eta berak esan nola egiten duen eta gustatzen zaion: irakin berria den urari kafea (*Coffea arabica* eta *Coffea canephora*) adina txikoria (*Cichorium intybus*) gehitu. Bera bezala ia mendea harrapatzeko bizitzarako bizigarriak.

Txikoria ahaztua nuen; aspaldi nire kafearen mundutik desagertua. Entzun orduko, ordea, berehala etorri zaizkit bere usain gozoa eta dasta mikatza; lehen, gure ume garaitan kafea eltzean egiten zeneko memoriaren txokoa.

Kafea edonork zekien zer zen: kafe landarearen haziak txigortu eta ehoa. Aldiz, txikoria zer zen jakitea asko kosta zitzaidan. Galdera horri ia inork ez zion erantzuten, eta erantzun apurren artean ezer garbirik ez. Gerora irakurri eta ikasi nuen zer zen kafeari eranstean zitzaion txikori arraio hori.

Txikoria barazki eta sendabelar gisa aspalditik erabili izan da. Digestioa hobetzeko eta gibelak eta behazuna suspertzeko ona da, agi danean. Gure izebak arrazoi, berak tripetako arazoa izan du... Geroztik kafea osatzeko edota haren ordezkotik kafea gehiago ezagutzen da. Kafea



Espainiako gerra zibilaren ondoren, elikagaien eskasia orokorrari eusteko, txikoria gai baliotsua bihurtua zen; ezin zen nonahi eta nolanahi landu, galarazia zegoen.

garestia da; are gehiago gerrak, uzten galarak eta antzeko krisiek sortutako gose-teen. Jende askok txikoria hutsaren ura hartu izan du, kafearen ordezkotik. Beste askok kafeari nahasita; merketzeko, noski. Baina askori gustatu, kafea gozatu eta leuntzen du, baita dasta berezi bat erantsi ere.

Espainiako gerra zibilaren ondoren, elikagaien eskasia orokorrari eusteko, txikoria gai baliotsua bihurtua zen; ezin zen nonahi eta nolanahi landu, galarazia zegoen: horren erakusle, 1958an, sei probintziak soilik zuten txikoria ekoizteko baimena, tartean Bizkaiak. 1958-1959ko uztaldirako Bizkaiari 300 tona txikoria egiteko baimena eman zitzaion. Nork

egiten ote zuen txikoria garai hartan? Gustura ezagutuko nuke... Txikoriaren balioaren tamainaz jabetzeko, pentsa, kafearen ordezkotik zena bera XIX. mendean faltsutzen edo urardotzen zen azenarioarekin (*Daucus carota*), zuhain-erremolaxarekin (*Beta vulgaris* 'Mangelwurzel'), haritzaren azalarekin (*Quercus* spp), kaoba zerrautsarekin (*Swietenia mahagoni*), labean erretako behor gibelarekin eta brontze koloregaiekin eta herdoilarena ematen duen veneziar gorriarekin.


Orain dagoen gerra hots etengabeko honekin, kontuz, irentsi behar dugun nazkagarrikeria guztiaren digestioa hobetzeko on beharrez txikoria hartu eta ea zer hartzen dugun... ●



“Nekazari guztiak ekologikora pasatzera animatzen ditut; onura asko ditu eta etorkizun handiko apustua da.”

—
IBON OLLO
Ardogilea, IRUNBERRI

**ETORKIZUNA
EKOLOGIKOA DA
aurrera goaz!**




cpaen.org
navarraecologica.org




ERREZ KOOPERATIBA

“LEHENAGO EDO BERANDUAGO ONARTU, BASOGINTZA EREDU HONEN BUKAERA IRITSI DA”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

2018an sortu zuten Iñaki Etxebeste Larrañagak eta Markel Arriolabengoak Martiarenak Errez Kooperatiba Elkarte Txikia. Basogintzako kudeaketa eta aholkularitza enpresa da beraiena, baina jardun horri ikuspegi desberdin bat ematen diote. “Kooperatiba sortu genuen momentuan, krisian sartzen ari zen basogintza eredu nagusia, pinuaren gaixotasunaren harira”, azaldu du Arriolabengoak. Europan, estatu frantsesean nahiz Erresuma Batuan, ari ziren ordurako bestelako ereduetan sakontzen, eta Euskal Herrian bertan ere baziren Gipuzkoakoa eta Bizkaikoa baino kudeaketa jasangarriagoaren adibideak. Hortik tiraka ekin zioten lanari.

Erronka nagusia etorkizuneko testuinguruetara egokituko den basogintza bultzatzea dela azpimarratu du kooperatibako kideak. “Klima aldaketari, jendarteko beharrei eta bestelakoei erantzun dion ereduak behar dugu, eta basoak ekosistema-zerbitzu guztiak sortuko dituela bermatu”. Izan ere, ikuspegi produktibistari soilik begira garatu den basogintza ereduak egurraren ekoizpena izan du ardatz. Bista elementu bakar horretatik altxatzea ezinbestekoa da



Arriolabengoarentzat; alegia, maila berean jartzea egurraren ekoizpena, uren zikloa hobetzea, CO2 isurketak arintzea, aisialdia eta beste zenbait elementu.

“Europako zenbait herrialdetan garatu diren eredu batzuk zientziari eta ikerketari oso lotuta daude, eta esaterako, arraseko mozketarik ez dute egiten: bakanitze moduan egiten dira mozketak, ziklo bakoitzean zuhaitz konkretuak moztuz”, dio. Kooperatibak, gainera, bertako espezieekin soilik egiten du lan, aldatetara hobeki egokitzen direlako eta gaixotasun, izurrite eta baldintza klimatiko desberdinen aurrean arbola guztiak

kaltetzea zailagoa delako. “Zientziak askotan erakutsi duenez, kanpoko espezie bat sartzen denean eta horrelako produkzio maila izaten duenean, fase oso emankor bat egoten da, baina segituan iristen da kolapso egoerara”, azaldu du adituak pinuaren kasuari erreferentzia eginez. Kanpoko beste espezie batzuk modu bortitzean sartzen ari diren garaioetan, bi aldiz behintzat pentsatzeko moduko kontua.

Lurjabe pribatu nahiz publikoekin dihardu Errez kooperatibak, eta lanik ez zaio falta; honezkero lau lagun dira lantaldean.

TANTAI BASO JABE KOOPERATIBA

Herriz herri dauden ekimenei esker, baso eremu txikietan aldaketak ematen ari dira azken urteotan, baina sakoneko aldaketa bultzatzeko eskala handiagoko ekimenak behar dira. “Baso sail oso txikiak dira askotan, eta jabetzak oso banatuta daude. Horrek kudeaketa asko zailtzen du, eta hori da gaurko beste erronketako bat”, dio. Desafio handi horri heltzeko asmoz, Euskal Herri mailako kooperatiba sortzen ari dira orain: Tantai Baso Jabe Kooperatiba. Lurrak ustiatzeko egitasmo horrek usufruktu kontratu bidez lurren erabilera kooperatiboa bultzatu nahi du, bertako espezieak landatuz guztiontzako onura ekonomiko eta ekologikoak lortzera bidean. ●



Dolutik sortutako bidaia tantrikoa

Hilabete gutxiko tartean hil zitzairen ama Irati Gorostidiri (Eguesibar, 1988) eta Mirari Echavarriri (Iruñea, 1988), biak 1978an Lizason egonkortutako Arco Iris komunitate tantrikotik igarotakoak. Lehendik ere esperientzia hari buruzko interesa bazuten, dolu prozesuan azkartu egin zen guztia. Bilaketa hari emandako forma jasotzen du *San Simon 62* filmak, aurtengo Iruñeko Punto de Vista jaialdian estreinatu denak: bi alaba beren amekin elkarrizketan, eta tartean espiritualitatea, komunitate bizitza, noraez existentziala, generoa, sexualitatea edota askatasunaren bilaketa, 80ko hamarkada hasierako Nafarroan.

 KEPA MATXAIN

Gurasoak handik igarotakoak izanik, umetatik zuten ezaguna Arco Iris komunitatea Irati Gorostidik eta Mirari Echavarriri, baina orain gutxi hasi ziren hura zinez zer izan zen deskubritzen. Bateratsu, gainera. Aitak hango argazki liburu bat eman zion Gorostidiri, eta unean bertan kolpatu zuten. Segituan bidali zizkion Echavarriri. Hark ere bilaketari ekin zion orduan, eta argitalpen sorta bat aurkitu zuen gurasoenean. Komunitatean bertan sortutako aldizkariak ziren, bertako argazkiak eta ikastaroen promozio orriak biltzen zituztenak –horiek baitzituzten diru-iturri nagusi-. Gero, bien amak hilabete gutxiko tartean hil zirenean, jakin-mina areagotu zitzairen: “Amak zeu jaiotzean zeukan adinera gerturatzen zarenean gertatzen

da zerbait: oso konektatuta sentitzen zara berarekin, eta elkarrizketa batzuk hasten zaizkizu”, dio Gorostidik. Dolu prozesuan, amari buruzko guztia jakiteko egarri betean, bat egin zuten biek, eta hortik sortu dute *San Simón 62* filma, aurtengo Iruñeko Punto de Vista jaialdian estreinatu dutena –Arco Iris egonkortu zen komentuaren helbideari egiten dio keinu izenak–.

Filma egin ondotik ere kosta egiten zaie Arco Iris zer izan zen azaltzea. Erreparo modukoa ere sentitzen dutela dio Gorostidik, beren filmaz gain komunitate hari buruzko deus gutxi baitago sarean: “Ematen du hura zer izan zen definitzeko ardura dugula. Filma egin ondoren bizpahiru pertsonak idatzi didate, esanez beren gurasoak handik pasetakoak direla, eta hura zer izan zen

oso ondo ez dakitenez, ea azaltzerik badudan. Eta oso zaila da, noski. Gure ikerketako iturriak zuzenak izan dira: hango argitalpenak, parte hartzaileen testigantzak... Irudikatu dezaket, baina sentitzen dut oraindik ez dudala ondo ulertzen hura zer izan zen”. 70eko hamarkada amaieran sortu ondoren, zenbait urtez Lizason (Nafarroa) bizi izan ziren, Kataluniara joan aurretik –Arenys de Muntenera eta Alcoverrera-. “Hasiera batean komunitate tantriko bezala definitzen zuten, baina laster barneratu zituzten beste joera batzuk ere. Oshoren inguruko komunitateen oso antzeko estetika eta ikonografia zeukan. Bereztasuna da 1978an Nafarroan horrelako zerbait irudikatzea”, dio Gorostirik. Tantra oso garrantzitsua izanagatik, bestelako eraginak ere izan zituzten. “Hasieran askapen





sexualaren auzia funtsezkoa zen. Lider espiritualaren gertuko jendeaz gain, baziren han bizi zirenak, eta ikastaroetara soilik joaten zirenak ere. Hainbeste jende erakarri zuten ikastaroek, komunitatea asko hazi baitzen, eta Katalunian bi egoitza berri ireki zituzten laster”.

Zuzendariak hautu erradikal bat egin dute filmean: ez dute Emilio Fiel “Miyo” lider espirituala aipatu ere egiten. Garbi zeukaten hasieratik ez zutela lider baten inguruan eraikitako talde baten kontakizuna egin nahi, baina zalantza egin zuten gutxienez elkarrizketatu behar ote zuten ala ez. Gorostidik azaltzen du muntaian zehar erabaki zutela ezetz: “Atzera eragiten zigun, eta hori adierazgarria da. Arco Irisi buruz jaso dugun guztian hain zen bera protagonista... Kontua ez da halako guru baten ingu-

“Irudikatu dezaket, baina sentitzen dut oraindik ez dudala ondo ulertzen Arco Iris zer izan zen”

Irati Gorostidi

ruan gertatzen denak axola ez digunik –genero ikuspegitik, esaterako, oso interresgarria izan daiteke–, baizik eta beste kontakizun batzuei egin nahi izan diegula tokia”. Kontakizun horiek beren interres propioetatik gertu daudenak direla

zehazten du Echavarrik: “Gure amen arrastoari segika gerturatu ginen Arco Irisera, eta, beraz, hor jada ikusten da zein izan daitezkeen mugitzen gaituzten gaiak: amatasuna, sexualitatea, erditzea, umeen zaintza, gizonen eta emakumeen arteko harremanak... bat-batean ohartu ginen hari horiek guztiek harremana zeukatela”. Are, ohartu ziren auzi batzuk bereziki bilakatzen direla arazotsu, teorian askatasunaren bila dabilen komunitate batek erreproduzitzen baditu: “Guztia hankaz gora jartzen saiatu ziren, oso modu xaloan, funtsezko alderdi asko kontuan hartu gabe”, azaltzen du Gorostidik. “Berrogei urte igaro ditugu frankismoan, katolizismoan heziak izan gara, eta orain, goizetik gauera, hori guztia gainditzeko gai gara. Eta gainera zer, eta atzerriko joera batek –hinduismotik



datorren tantrak- konponduko dizkigu gure arazo espiritual eta sexual izugarri errotuak... niri oso gogorra iruditzen zait". Echavarriri antzera iruditzen zaio: "Espiritualitate ez-material horrek auzi oso materialekin egiten zuen talka, espiritualitate maskulino pribilegiatu bat zelako". Tantra gorabehera, emakumeak haurdun geratzen ziren, eta taldetik baktartzen zituzten orduan. Talka horixe da Gorostidiri esperientzia hartatik gehien interesatzen zaiona: "Oso arazotsua da sexu askapenaz hitz egitea genero ikuspegia kontuan izan gabe. Egundik, gauza batzuk nola egin zituzten ikustean, zailantza asko pizten dira".

IDEALIZAZIORIK EZ, EPAI ERRAZIK EZ

Kritikak gorabehera, filmak esperientzia hari balioa eman nahi diola aipatzen dute zuzendariak. "Askotan konturatzen naiz oso erraza dela jarrera epaile batetik begiratzea hari, sekta bat balitz bezala. Aldi berean, erraza da zinismoan erortzea ere. Horiek saihesten ahalegindu gara", azaltzen du Gorostidik. "Baita erromanizismoa ere", gehitzen du Echavarririk:

"Hura bizi izan zuten zenbaitek idealizazio moduko batetik gogoratzen dute. Baina gero, pertsona horiek beraiek oso esperientzia gogorrak oroitzen dituzte. Pentsa zein konplexua den".

Esperientzia hartara modu orekatuan gerturatzeko bide bila zebiltzala, beraien burua filmean sartzea erabaki zuten. Erreportaje ortodoxoaren logikatik ihes egiteko modu bat izan zen, nolabait. "Grabatzen ari zarenarekiko sekulako distantzia hartu dezakezu, ahots askotarikoen bidez gertatu zena berreraikitzen saiatuz. Gure apustua justu kontrakoa izan da: hautatu ditugun ahotsak oso partzialak dira, lotura zuzena izan dugu pertsona horiekin, gu ere tartean gaude, eta ikuspegi intimo batetatik kontatzen dugu esperientzia honetatik zer interesatzen zaigun", dio Gorostidik. Ez zeukaten oso pentsatuta hautu hori; amen doluak filmean zer toki izango zuen ebazterakoan erabaki zuten biak agertzea.

Beste erabaki formal garrantzitsu bat ere hartu zuten: ez pilarik ez bateriarik ez duen 16 milimetroko Bolex kamera batekin grabatu zuten guztia, beren bu-

ruari prozesua konplikatu asmoz. Gehieenez minutu erdiko planoak graba zitzaketen, gero moztu egiten zelako. Kontziente dira 16 milimetroko kamerak dispositibo edertzaile izan daitezkeela, baina bes-telako zentzua aurkitzen diote beraiek, teknologia ezartzen dizkien baldintzetara egokitzea interesatzen baitzaie. Gorostidiren arabera, kamera mota horiek azaleko ikuspegi batetik erabiltzeak ez du zentzu handirik: "Badira planoak edertzeko modu errazagoak. Kamera mota hauekin lan egitea oso nekeza eta garestia da. Eta izugarri baldintzatzen du soinuaren lanketa ere. Hain da kamera zaratsua, une oro entzuten baita". Errodajeen zehar konturatu ziren ezingo zutela soina irudiarekin sinkronizatu, kameraren ezaugarri bereziengatik. Filmaren azken bertsioa erabat baldintzatu die horrek.

Kamera berezi horrekin lan egiteak egiten ari zirenarekiko distantzia hartzeko balio izan dio Echavarriri: "Teknologia digitala oso barneratuta dugu egunerokotasunean. Aldiz, halako teknologia zailago batek beste ikuspuntu bat hartzen laguntzen dizu, zer esanik ez gurea bezalako gai intimoa eta emozionalki pisutsua bada.



Eszenaratzeak askoz gehiago pentsatu behar dira". Gorostidik bat egiten du: "Grabatzen duzunaren eta ez duzunaren artean muga oso handia sortzen da. Digitalarekin sortzen da fantasia bat -ez dena egia-: ematen du grabatzerakoan ez duzula zertan erabaki handirik hartu, badaezpada dena grabatu dezakezulako. Analogikoarekin, aldiz, kontu asko erro-dajejan bertan erabaki behar dituzu".

JARRAITZEKO AUKERA ZABALIK

Umetako lagunak dira Gorostidi eta Echavarri, baina urte luzetan elkarren berri izan gabe egon ondotik, Bilboko Arte Ederretako klasean egin zuten topo. Klaseko lan asko lankidetzan eginagatik, hau dute elkarrekin zuzendutako lehen filma. Gorostidik aurkeztu zuen proiektua Punto de Vista jaialdiko X Films lehiaketara, eta gerora sartu zen Echavarri prozesuan: "Ni sartu nintzenerako gauza asko definituta zeuden, baina erro-dajejan asko inprobisatu dugu. Niretzat berria izan da horrela lan egitea, erabakiak unean bertan hartuz. Norbaiten atea jo, eta ea zer gertatzen zen. Prozesuan konfiantza izaten irakatsi dit".

**"Gure amen arrastoari
segika gerturatu ginen
Arco Irisera, eta, beraz,
hor jada ikusten da
zein izan daitezkeen
mugitzen gaituzten
gaiak: amatasuna,
sexualitatea, erditzea,
umeen zaintza, gizonen
eta emakumeen arteko
harremanak..."**


Mirari Echavarri

Filma ikusi duten askok aipatu diete gehiagoren gosez geratu direla. Orain-goz asmo zehatzik ez daukaten arren, badute proiektuarekin nolabait jarraitzeko gogo. "Ideia pila bat genuen, baina ez zigun gehiagorako denborarik eman". Edonola, Gorostidik behintzat, Arco Iris komunitateari buruzko kontuekin jarraitzeko asmoa du. *Anekumen* izeneko fikziozko film luze bat idazten ari da, bertako esperientzietan girotua: "Lehendabizi otu zitzaidan gai honi fikziotik heltzea, baina hainbesterako ematen du... Orain bukatu berri dudana laburra film luze horren lehen zati modukoa da. Filmeko protagonistek ibilbide jakin bat egiten dute: langile mugimendutik datoz, han ernatzen zaizkie kezka iraultzaile horiek guztiak, eta sartzen dira Arco Irisen. Jende askoren ibilbidea izan zen hura, bai Mirariren gurasoena, bai nireena. Trantsizioan dezepzio batek harrapatzen ditu, eta baita hutsune izugarri batek ere. Krisi existentzial moduko batean sartzen dira, ezeri zentzurik ez diote aurkitzen, eta halako tokietan bilatzen saiatzen dira. Hori dut idazten ari naizen proiektuko gaia". ●



LIBURUA

Louisianako 'madame' eta 'monsieur'-rak



EKAITZA ETA BESTE 34 IPUIN

KATE CHOPIN (ITZ.: JOXE MARI BERASATEGI)

EREIN ETA IGELA, 2021

AMAIA ALVAREZ URIA

Literatura Unibertsala bildumaren 181. aleak Kate Chopinen lana eza-gutzeko modua ematen digu. Emakume idazle estatubatuar honen lanik ezagunena *The Awakening* (1899) eleberria da, bere garaian gutxietsia eta 60ko hamarkada arte baztertua izan zena. XIX. eta XX. mende arteko emakume batzuen kontzientzia hartzea da bere lanetan agertuko zaigun gai nagusia. Protofeminismoaren lan erreferentzialetako bat da, horrenbestez.

Chopinek XIX. mendearen amaieran idatzi zituen ipuinok, alargundu ondoren diru-sarrera bat izateko. Begirada kritikoarekin egindako bere garaiko argazkiak eskainiko dizkigu, ezkutukoa agerian utziz: "Jada ez zitziaion garrantzitsua begitantzen giza-kien joan-etorria; munduan gora edo


behera egitea; ezkondu edo hiltzea. Ez zen axola zori-kolpe batek dirua ematea edo kentzea. Hutsak eta ezdeusak iruditzen zitzaizkion munduak giza-kiari entretenimendurako eskaintzen dizkion trepetak guztiak".

Era berean, Ameriketako historia hobeto ezagutzen lagunduko digu liburu honek. Izan ere, inperio britaniarra eta espainiarra ez dira izan Amerika kolonizatu eta bertan arrastoa utzi duten bakarrak. Akadiarren edo kahunen komunitatea agertzen da narrazio hauetan. Hau da, kolono frantsesen ondorengo kreoleak. Hortaz, AEBetako hegoaldeko Louisianako frankofonoak dira pertsonaiak "jauntxo zuri", "esklabo beltz" eta "bertako basati"-ekin batera.

Azkenik, beste hizkuntzak eta kulturak euskarara ekartzearen inguruan

ere bi hitz esan nahiko nituzke. Itzul-pengintzaren erronkak eta euskararen normalizazio eza dira partekatu nahi ditudan kezkek. Zenbait itzulpenetan euskara estandar jasoaren erabilera-n nagusitasunak euskara hori ondo ezagutzen duten irakurleak eskatzen ditu eta, telebistako garai bateko bikoizketarekin gertatzen zen moduan, literatur lan itzuliak homogeneizatzeko arriskua dago.

Kasu honetan itzultzaileak lan handia egin duela ezin da ukatu, bereziki ahozketasunaren adierazkortasuna lantzerakoan. Hala ere, aitortu behar dut, ahozkorako Goierriko hizkera hautatu izana arrotz egin zaidala eta denbora behar izan dudala ohitzeko. Ez da erraza normalizatu gabeko hizkuntza batean hautuak egitea eta bideak urratzea. ●



MUSIKA

Festa amaiera bikaina



MUSIKA HAMABOSTALDIA

Musika Hamabostaldia. Txekiar Orkestra Filarmonikoa. **Zuzendaria:** Semyon Bychkov. **Bakarlariak:** Katia eta Marielle Labèque (pianistak), Evelina Dobračeva (sopranoa), Lucie Hilscherová (mezzoa), Ales Briscein (tenorea), Jan Martinik (baxua), Daniela Valtová Kosinová (organoa). **Egitaraua:** Mahler, Dvorák, Martinu eta Janáček-en lanak. **Lekua:** Kursaal Auditorioa. **Data:** abuztuaren 26a eta 27a.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Mundu honetan gauza guztiak bezala, amaitu da Donostiako Musika Hamabostaldia. Normaltasu-nera itzultzeak markatutako edizioa izan da, eta horrek ikusleen gogo berezia eta giroan sumatzen zen nolabaiteko poza ekarri ditu.

Musika ez da diziplina tekniko hutsa, musika kutsu emozionalez inguratuta dago. Agertokian gertatzen dena ez da partitura baten interpretazio soil batera mugatzen. Denak du eragina kontzertu baten kalitatean: instrumentisten trebetasunak, haien *mood*-ak interpretatzeko orduan, baita, jakina, interpreteek inguruan sumatzen duten giroak ere. Aipatzen nuen poz eta gogo horrek eragin nabarmena izan du jaialdiaren 83. edizio honetan izandako saio bikainetan.

Aurten eskainitako azken bi kontzertuak merezitako amaiera izan ziren. Europako orkestrarik onenetako bat, 2018tik zuzendari titularra den Semyon

Bychkov errusiarrak zuzendua. Bi saioetan oso argi geratu zen Txekiar Orkestra Filarmonikoa talde aparta dela, eta Bychkovek ederki ezagutzen duela, interpretatu zen erreperitorioa ezagutu eta menperatzen duen bezala.

Gustav Mahlerren 7. sinfonia, *Gaueko kanta* izenekoa, ziur aski bere sinfonien artean gutxien ezagutzen dena da. Obra handia da, bost mugimendu ditu eta orkestra izugarria behar du. Konpositore bohemiarren obrarik ezagunena ez izan arren, publikoaren gozamenerako izan zen, bere barietateagatik, bere tinbrika aberatsagatik eta Bychkovek hasieratik amaierara eramaten jakin zuen argitasun eta dotoreziagatik. Ehundura ezberdinak zuzen azpimarratu ziren eta edertasun handiko uneak izan ziren, nokturno biak kasu -2. eta 4. mugimenduak-.

Bigarren kontzertua txekiar festa izan zen. Txekiar musikagileen obrak interpretatu ziren eta ahots bakarlarietako

batzuk Txekiatik zetozen. Saioa Antonin Dvoràken *Inauterien Obertura op. 92* obraren distirarekin hasi zen, kemen-tsu eta koloretsu. Jarraian jo zuten obra, Bohuslav Martinuren *Piano eta Orkestrarako Kontzertua H292* lana ere indartsua eta erritmikoa da, eta pianista bakarlarientzat erabat deabrutua, baina Labèque ahizpen eskuetan munduko gauzarik naturalena irudi lezakeena. Bi pianista hauek, bi pianoren erreperitorioan munduko onenetakoak seguruenik, sekulako teknika eta gustu musikal bikaina dituzte, baita fraseatzeko fintasuna eta interpretatzeko dotorezia ere, entzule guztiak liluratzen dituenak. Bikain, benetan.

Amaitzeko, Leos Janáček-en *Meza Glagolitikoa*, XX. mendeko obra handienetako bat, saio interesgarri baterako postre perfektua izan zen. Lau abeslari bakarlariek interpretazio egokiak egin zituzten eta Donostiako Orfeoia une ederrak izan zituen *Agnus Dei* pasarteetan. ●



Ertibil 22

 IÑIGO BASAGUREN-DUARTE

Arte-lehiaketaren aurrean hainbat kontraesan sortzen zaizkit. Alde batetik, artistak eta artelanak lehiakortasunaren dinamikaren barruan kokatzen dituzte, artearen izaera eraldatzaile eta kolektiboa alde batera utziz eta logika merkantilisten barruan kokatuz; baina ezin uka, batzuetan, artista askok beraien burua ezagutarazteko moduetako bat denik. Ertibilaren lehiaketaren kasua, behintzat, Bizkaian lanean dabilen artista gazteen lanak ezagutzeko aukera paregabea da. Uztailaren 14an aurkeztu ziren publikoki Ertibil 2022rako aukeratutako artelanak Bilboko Rekalde Aretoa. Lehiaketara aurkeztutako partaideen artean irabazle ateratako hiru artisten lanez gain aukeratutako beste hamabost lan ikusteko aukera dugu urriaren 16ra arte.

Rekalde Aretoa aurtengo edizioako irabazlea izan den Alazne Zubizarretaren lanarekin egingo dugu topo. Arrasatearrak *Clotet Cream* izeneko hogeita

lau grabatuz osatutako pieza aurkeztu du, ur-tinta eta akuaforte teknikekin egindakoak. Alazneren obra ederra da, oso, baita iradokitzailea ere. Plazeretik eta gozamenetik abiatutako mundua eraiki du, eta mundu miresgarri horren hogeita lau argazki eskaini dizkigu, ametsetik zein bideo-joko batetik aterata diruditenak. Deabrutxoak, izaki miresgarriak eta ikusmenerako plazeraren diren forma geometrikoak elkartu ditu, hogeita lau leiho irekiren bitartez mundu baten panoramika eskainiz.

Saritutako bigarren lana Lucia Pedregal-en erretratu bat da, zeinean artista eta bere katua ikusten diren. Pieza honen bitartez Pedregalek autoezagutza eta bidaide dituen kideen aitortpena islatu nahi izan ditu. Hirugarren saritua Mar de Dios barakaldarra izan da. Azken urteetan landu duen ildoak jarraitzen duten zeramikazko hiru pieza aurkeztu ditu, sentsualak eta dotoreak diren hiru pieza, sorkuntza prozesuan bitartekoak diren momentuak irudika-

ERTIBIL BIZKAIA 2022 ERAKUSKETA

NOIZ: Uztailak 14 - urriak 16

NON: Rekalde Aretoa (Bilbo)


tzeko erabili dituenak.

Esan bezala, sarituak izan ez diren beste hamabost artista gazteren lanak ikusteko aukera ere ematen du Ertibil erakusketak. Hauen artean eklektikotasun handia aurkitu daiteke, bai teknikari -bideoa, argazkia, pintura zein eskultura, eta abar- bai piezen intenzionalitateari dagokienez. Mireya Moralek, adibidez, zuri-beltz malenkoniatsuzko bi argazki kontrajarri ditu irudi bakarra osatzeko. Maider Gonzalok, bestetik, taula baten gainean zinta itsaskorrarekin pintura lan bat dirudien irudia osatu du *Mi Crush* izeneko lanean. Paula Huartek, ordea, zeramikazko zazpi pieza batera jarri ditu. Zapi haur dira, formazioan, burbuila batek burua estaltzen diela.

Uzta oparoa aurtien Ertibiliek jaso eta erakutsi diguna. Rekalde Aretoa egon ostean Bizkaian zeharreko ibilbideari ekingo dio erakusketak, Arrigorriaga, Basauri, Santurtzi eta Balmaseda bisitatuz. ●



Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Biguna, ezta . / Nafarroako herria. **2.** Eskas, murrizt . / Zementuzko pieza handi.
3. Diru zaharra. **4.** Bigunarazi. **5.** Helduegi dagoen fruitu . / Mirabe lana. **6.** Egiteko, zailtasun . /
 Bekatu egin ohi dutenak. **7.** Kataluniako herritar . / Alproja. **8.** Intsektu soziala . /
 Oinaztarri, lurrera erortzen den tximista.

GOITIK BEHERA:

1. Hegaztien gorputzaren kanpo-estalkia . / Eguzki. **2.** Abagune, aukera . / Izan.
3. Usoak bere lagunari txera erakutsi. **4.** Nigerko hiriburuko biztanlea. **5.** Zabaldut hitzaren erdian
 . / Lawrentzioaren sinboloa. **6.** Bakarrik . / Baiezko. **7.** Albo. **8.** ... behinka, noizean behin.
9. Modu atzizkia (alderantziz) . / **Argazkiko basoa.** **10.** Zuhaur . / Itsas arrain. **11.** Bakoitzak bat.
12. Egoki, erara. **13.** Tinko, irmo. **14.** Abarka-moduko oinetakoa. **15.** Ahuntzaren ar.

Sudokua

ERRAZA



		3				9	2		7
						2			8
1		8			3	7	4	6	9
5						4	7	1	
3		7	1				5		2
			7	5			9	8	6
	5	2		8			3	7	1
8						5	6	9	
9	7	6	3	4			8		

ZAILA

						9	1		
2	8						6		
		3		7	4				
		6						7	
5			8	2	7				
4			1				9		
		1					3	2	
		2			8				
	6	8		9			5	1	

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA
 BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT
 AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN
 HIZKI BERA DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA
 BESTELAKO HURRENKERAN.

Segurki, noski

Urrin

Lurrin-bainua

Nau

Eserleku luze

Zintzarri handia

Aita santuaren agiria

Zurari forma eman

Udalerria

Diru truke eman

Geun, gandu

Burusoila, karsoila

Hizketa, berriketa

NASKI

SOLAS

EBAZPENAK

HIRLABETEKOK ELURRA.
 URRIKO ELURRA, ZORTZI

ATSOZITZA

SOLAS
 SOLA
 LAUSO
 SALDU
 UDALA
 LANDU
 BULDA
 DUNBA
 BANKU
 NAUKA
 SAUNA
 USAIN
 NASKI

ANAGRAMAK

ERRAZA
 BANA, 12. ERAZ, 13. TINK, 14. ZATA, 15. AKER.
 ALDAMEN, 8. NOIZIK, 9. IK, IRATI, 10. ZEU, ATUN, 11.
 URUMATU, 4. NIAMEIAR, 5. BAL, LR, 6. BER, BAL, 7.
 GOTIK BEHERA: 1. LUMA, EKI, 2. ERA, UKAN, 3.
 OINAZKAR.
 EKAI, BEKATARIAK, 7. KATALAN, TUNANTE, 8. INURRI,
 MARABEDI, 4. UMARAZI, 5. UMEL, MIRABETZA, 6.
 ESKEK-ESKUI: 1. LEUNA, ANIZ, 2. URRI, BLOKE, 3.

Irati Majuelo Itoiz

LITERATURA KRITIKARIA



LITERATURA, HERRIA ULERTZEKO

“Txiki-txikitatik liburutegiko karneta eduki eta liburu guztiak jaten zituen ume handitu bat naiz, orain ere liburu asko irakurri eta horiei buruzko iritzia ematen duena. Itzulpengintzan hasi eta literaturaren teoritik pasata euskal literatura ikertzen bukatu duen iruindarra. Kritikagintzak balio dit gure literatura ulertzeko, gure kultura ulertzeko, eta ondorioz, baita gure herria ulertzeko ere”.

“Kritikariaren figura lotzen dugu egia absolutuak dituen intelektualarekin; mito hori deseraiki behar da”

Euskal literaturaren kritikagintzan aritzen da azkenaldian Irati Majuelo (Iruñea, 1993), bi astero, *Berriaren* orrietan. Baina aurretik ere bazuen euskal literatura aztergai, modu akademikoan. Doktore tesia ontzen ari da, hain justu, euskal literaturaren eta hiriaren arteko harremanaz. Bartzelonan ikasten ari zela piztu zitzaion kezka, hiriari buruzko ikasketak interesatu zitzaizkionean, baina berak euskal literaturaz zekizkienekin bat egiten ez zutela ikusterakoan. “Talka horretatik abiatu nintzen”.

✍ ANDER PEREZ 📷 JOSU SANTESTEBAN

Zer da zehazki ikertzen duzuna?

Euskal eleberrigintzak hiriarekin duen harremana, baina fokua jarrita gure literaturan hiria irudikatzeak agertu diren bide alternatibo batzuetan, ez dutenak jarraitzen hiriari buruzko literatura klasikoaren eredua. Hor badaude gako batzuk, gatazka batzuk, gure literatura definitzen dutenak.

Adibidez?

Iruditegi klasikoa estatu bateko hiri-buruan zentratzen da, metropolian, kosmopolita eta industrializatua, bere gatazka guztiekin. Baina bereziki begirada maskulino eta klase sozial altu batetik kontatua da, eta, askotan, gatazka duena landa eremuarekin. Iruditegi hori XIX. mende bukaerakoa da, eta gurean literatura urbanoa 60ko hamarkadatik aurrera garatzen da, eta horrek ja badakar-tza desberdintasun batzuk. Baina,

gainera, begiratu ditudan bide alternatibo horietan badaude begirada feministak, nazio zapalkuntza aintzat hartzen dutenak, landa eremuarekin bestelako lotura dutenak...

Aztergai izan dituzun liburuen artean, zeintzuk aipatuko zenituzke?

Oso esanguratsuak egiten zaizkit hasiera-hasierako pare bat liburu: *Egunero hasten delako* [Ramon Saizarbitoria] eta *Zergatik panpox* [Arantxa Urretabizkaia]. Literatura urbanoan gurean egon diren lehendabizikoe-takoak dira, eta emakumeak dira protagonista; horrek eragiten du hiriaren beste alderdi batzuk agertzea, eta eremu publiko eta pribatuaren arteko lotura oso sendoak agertzea.

Tesia bukatzeke izanagatik, atera dezakezu ondorioz dagoeneko?
Gurea, askotan, literatura atzeratu

"Bere burua zalantzan jartzen ez duen sistema literario batek ez du gauza esanguratsurik lortuko".



modura tratatu da, guztiz garatu gabea, literatura hiritarrak gabeko literatura gisara. Baina uste dut badaudela bide alternatiboa erakusten duten beste liburu batzuk ere. Hori aintzat hartuz gero, gure literaturaz dugun irudia berrirakurri daiteke. Eta alde horretatik uste dut interesgarria dela liburu hauei behatzea, bide alternatibo horiek aztertzea, sistema literario globalean egoteko beste modu bat erakusten dutelako, moderno eta hiritar izateko beste modu bat, beste literatura txikiei baliagarri zaiena.

Tesia egiten ari zinela agertu zitzaizun prentsan kritikari aritzeko aukera. Nola ikasten da kritikari izaten? Norbera egiten da, ala beste batek ematen dio zilegitasuna?

Uste dut denok dugula barruan kritika-ri txiki bat. Liburu bat irakurtzen duzunean zugar eragiten du, eta zerbait pentsatzen duzu. Eta kritika, oinarri-oinarrian, hori da. Nik, hasi nintzenean, ez nion nire buruari legitimaziorik ematen. Baina kritikariaren figura lotzen dugulako ere egia absolutuak dituen intelektualarekin, juzgatzen duena liburu bat ona edo txarra den. Mito hori deseraiki behar da. Kritikak egin ahala ikusi dut

nik ez dudala horrekin bat egiten. Kritikariak gehiago beharko luke liburuak begirada zorrotz batekin irakurtzen dituen irakurlea, oinarri teoriko batzuk izan ditzakeena –eta horiek zalantzan jartzeko prest dagoena–, baina azken finean iritzi subjektibo bat duena.

Gazte eta emakume izateak eragiten du kritikari gisara duzun autoritatean?

Autoritaterik daukadan ere ez dakit. Ez dut *feedback*-ik jasotzen, eta beraz, ez dakit autoritaterik dudana. Baina jaso dudana gutxietan nire posizioa zalantzan jartzeko izan da, eta uste dut horrek badiela harreman zuzena gaztea eta neska izatearekin.

Autozentsuratzeko joerarik izan duzu?

Saiatzen naiz ez egiten, baina noski, herri txiki batean bizi gara, eta elkar ezagutzen dugu, edo ezagutu dezakegu. Kontua da gure testuinguruan, hain zirkulu txikian, ez dakidala erabakitzen ahal duzun distantzia hori hartzea.

Onberegia izatea egotzi zaio euskal kritikagintzari, hain justu.

Baina askotan ulertu izan delako kritika oso gauza kategoriko eta maskulino gisa. Kritikaria da esaten duena liburu hau erosi behar duzun edo ez. Eta horrek eragiten du alde positiborantz, agian hainbestekoak ez diren gauza batzuk loriatzen, edo kontrara, idazleak *matxakatz*en, ez dakidana ez ote den gehiago kritikariaren egoa puzteko. Kritikari batek egin beharko lukeena da idazleak ze asmo eduki duen ikusi, nola eraiki dituen pertsonaiak, zer eragiten dion irakurleari... Kritika zorrotz batek, negatiboa izanda ere, eragin positiboa du. Beti ere jakinda kritikaria pertsona bat dela, iritzi bat duena, eta okertu daitekeela.

Baina hizkuntza gutxitu bateko literatura sistema batez ari garenez gero, mugatu zaitu kritika negatibo batek izan dezakeen eraginak?

Ez dakit hainbesterako eraginik dugun ere. Ez genduke hainbesteko beldurrik izan behar, zeren, ongi egina bada, kritika onerako izango da. Bere burua zalantzan jartzen ez duen sistema literario batek ez du gauza esanguratsurik lortuko. Baina faltan sumatzen ditut eztabaida eta iritzi trukerako espazioak. Horrek sistema literarioa elikatuko luke. ●

Odon, berriz Odon

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Denboraldi politikoa zozo samar zetorrenez, gidoilariak pertsonaia *vintage* bat berreskuratzea erabaki dute: Odon Elorza bueltan da, panazko arropak eta 90eko hamarkadako orrazkerak bezala. “Quisiera ser alcalde Donostiakua” kantatzeko gogoz omen dator. Notizia irakurtzeko burua pantailara makurtzean, haren alderdikideren baten lepoak kraska egin du, gabarroiko trapolin batek puskatzean egingo lukeen moduan. Izan da pixka bat Jose-lontxo, barka, Jose Ramon Soroiz *Goenkale*-n berriz agertu zenean bezala, “ez nengoela hilda, parrandan nenbilela” kantari.

Kontuak egiten hasita, Elorzak ia hamar urte zeramatzan jada Madrilen altza Pelipe trulalai; alegia, politika municipalera ez zela inoiz itzuliko imajinatzeko bezainbeste. Pentsa, Ulisesek Troiako lanak bukatuta denbora hori behar izan zuen Peneloperengana bueltatzeko, eta unibertsalki onartutako zerbait da itxaronaldi luzeegia tokatu zitzaizola aukeran. Ez naiz bi pertsonaiak maila berean jartzen ari, ojo: antzinateko gerrak nahi duzun guztia, baina ikusi nahi nuke Homeroren heroi bat Elorzaren ondoan “*¡cobardes!*” builaka autobus bat erre berri zuten gazte gasolineroei, hain bulartsu, ezen gabardina tarratatu behar zuela ematen baitzuen, alkate txiki eta ahots txirulari samarrek hura une batetik bestera bihurtuko zela, nik zer dakit, Hulk.

Beharbada eszena hori izan zen Elorzak hedabideetan izan zuen lehenbiziko *highlight*-a. Atzetik beste asko etorriko ziren, adibidez hauteskunde kanpaina baten erdian saskibaloi-kan txan bere abileziak erakusten agertu zenekoa, PSOEkoa izateaz gain Gepetto Brothers klubeko kide ere badela argi



utiziz; edo Aste Nagusian izozki-saltzaillez jantzita ikusi genuenekoa. Eta barre egiten genuen bere lepotik, baina berak guretik gehiago: 20 danborrada, bata bestearen atzetik, eta aulkia inork kentzen ez. Hiri oso bat zen pertsonari buruz ari gara, izan ere. Odon denboranunitate bat da donostiar askorentzat, gertakariak neurtzeko erreferentzia bat. “Hori Odonen aurretik izan zen” entzutean imajinatu behar zenuen garai bat zeinean Donostiak beste alkate bat eduki zuen –kontu horietaz aritzen zirenek Ducados erretzen zuten eta gauzen prezioak pezetatan esaten ziztuzten–.

Orain eztabaida piztu nahi duela esaten dio itzuleraz galdetzen dion edozeini. Donostia aspergarri ikusten duela –bueno, ez da inoiz Tijuana izan, ez–, turismoaz enpo eginda hiltzeko arriskuan, gauzak ez doazela bide onetik, eta hau, eta hura, eta bestea. Maleziatuko

nuke, ordea, hiria salbatzeko asmo deklaratu horiek ezkututzen dutela etxeko zapatiletan dabilen problema aitortu gabeko bat: Espainiako legegintzaldia hemendik urtebetera bukatzekoa da, Elorza diputatuak olinpikoki paso egin du behin baino gehiagotan alderdiaren diziplinaz, eta “bertso askea” izatea oso ondo egon arren, partidu politikoetan oraindik ondo desberdintzen dute zer den libertatea eta zer den libertinajea. Eta bigarren horretatik asko-asko ez dizute onartzen.

Igual oraingoan partiduak ez dio Madrilerako hautagai izaten utziko. Igual ez du erretiratu nahi. Eta igual pentsatu du La Oreja de Van Gogh eta Duncan Dhu itzuli baldin baziren, berak ere *revival* bat egin dezakeela Alderdi Ederreko udaletxean. Ez dirudi oso plan errealista denik, baina aizua, 2022an gaude: gauza arraroagoak ikusi ditugu dagoeneko. ●

ARGIA EGUTEGIA 2023

*Egunero efemeride bat.
Burujabe garenez, historia guk ere idatz dezagun.*



+ 5€
bidalketa gastuak.

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

BIZUM bidez ere
ordaindu daiteke.

10€



Era guztietako gertaerak topatuko dituzu orriotan, egunez egun. Asko hedabide handienek beren errepaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira. Injustizia isilaraziak eta horien aurkako altxamenduak, langile borroka azpimarragarriak, ekintzaile sozialen ekimen anitz edo Euskal Herriko panorama politikoa astindu zuten albisteak.

AURRE-SALMENTA:
AZOKA.ARGIA.EUS • 943 37 15 45

GURE HEROIAK

Elkanoren eta Euskal Herriko kolonialisten
historia bat

20€

280 or.

+ 5€

bidalketa gastuak.

40 €-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

BIZUM bidez ere
ordaindu daiteke.

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

Ez zu eta ez ni ez gara
kolonialista, inbaditzaile,
konkistatzaile, ezta esklabista
ere. Inork ez ditu bere egiten
euskal herritar askok (ere)
mende luzez egindako astakeria
horiek. Ordukoaz guk ez dugu
ardurarik. Baina konkistatzailea
esploratzaile, kolonizatzailea
humanista, eta esklabista
enpresa-gizon bilakatuta,
iraganean gertatutakoa hemen
eta orain ospatzen eta zuritzen
dugunean, orduan bai, ardura
gurea da berdintasunean
eta justizian oinarritutako
etorkizuna eraiki nahi badugu.

 **ARGIA LIBURUAK**